

DATORRENA

AA kooperatiboa eta
Cloudflare afera OIER IMAZ ALIAS > 3

BOGA BOGA:

Ondarroako andreak, zahartzaro
feministaren alde > 12

2025eko azaroaren 22a | XIX. urtea • 953. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



JAKOBA ERREKONDO:

«EZ DAUKAT JUBILATZEKO ASMORIK,
ORAINDIK IKASTEN ARI NAIZ» > 22 Gorka RUBIO | FOKU

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. Erredakzioa: Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.
Argitaratzailea: Astero. Lege Gordailua: SS-77/07. Helbidea: Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. e-posta: info@gaur8.info. Publizitatea: Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



Elay Taldeak 25 urte bete ditu
Celaya hiri mexikarrean 04

Sexu tortura Palestinan,
genozidioaren beste ertz bat 08

Zahartzaro feministaren adibide
ederra filmatu dute Ondarroan 12

Pantaila Txikian:
Deserosotasunaren lurralde
labainkorrean 18

Jakoba Errekondo: «Urte askotako
lan berezi baten ondorioz etorri da
aitortza hau» 22

In fraganti: Miren Garbiñe de
Diego 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 Oier Imaz Alias: AA
kooperatiboa eta Cloudflare
aferra

10 Ula Iruretagoiena Busturia:
Hostoak kaleetan

11 Ramon Sola: San Mameseko
oasia

16 Maider Iantzi Goienetxe:
Korapiloak askatzen

16 Xabier Mikel Errekondo:
Pasioa

17 Almaia Ballesteros

20 Irati De Torres Bilbao:
Pribilegiotik biktimizaziora:
narratiba antifeministak
Manosferan

21 Iker Barandiaran: Hustu

30 Goretti Echegaray Lopez:
«Ingeniaritza» hitzaren generoa



{ datorrena } Oier IMAZ ALIAS

AA kooperatiboa eta Cloudflare afera

Azaroaren 18an, zortzi orduz egon zen Cloudflare zerbitzua erorita. Cloudflare edukien banaketa sare bat da. Bitartekari moduan funtzionatzen du, Interneteko edukien hartzaileen eta hornitzaileen artean, eta bermatzen ditu sarean kontsultatzen edo eskaintzen ditugun edukien segurtasuna, errendimendua eta azkartasuna. Zerbitzuaren mekanika sinplea da. Cloudfaren zerbitzariak ditu munduan zehar barreiatuak. Adibidez, "Político"-ren web orria bisitatzen dudanean artikulua hau idazteko ideien bila, kontsulta bideratzen da etxetik hurbilen den zerbitzarira. Modu horretan, zerbitzuak helbide bakarrean metatzen diren kontsultak barreiatzen ditu, abiadura handituz eta konexioen segurtasuna bermatzea erraztuz. Bolumenaren kontzientzia hartzeko, Cloudfaren, batez beste, 71 milioi http: kontsulta bitartekaritzen ditu segundoero eta egun sarean dauden web orrien %20ri ematen die zerbitzu, tartean, Chat GPT, X edo Zoom.

Horrelako zerbitzu baten etenak duen inpaktua agerikoa da. Baina ez da lehen aldia. Urriaren 20an Amazon Web Services ere hainbat orduz erori zen, kasu honetan, zerbitzurik gabe utziz Snapchat, Fortnite, Signal, Prime Video eta Alexa, besteak beste. Arrazoiei erreparatuz gero, eta konspirazioen tentazioari iskin eginez, konpainiak adierazi du konfigurazio artxibo batean egon zela arazoa. Delako artxiboa automatikoki sortzen da Interneteko trafikoa handitzen denean trafiko hori kudeatzeko. Bada, kasu horretan, artxiboa aurreikusitakoa baino gehiago hazi zen, sistemaren zartatzea eraginez. Hau da, trafikoa kudeatzeko sortutako artxiboa hainbeste hazi zen trafikoa bera oztopatzen amaitu zuela. Paradoxak agerian uzten ditu bi gauza. Lehenik, Internet bidez kudeatzen ditugun zerbitzuen hazkundea esponentziala da, ziu- rrenik, adimen artifiziala (AA euskaraz, ingelesezko sigletan AI) bezalako teknologien zabalpenaren ondorioz. Bigarrenik, unibertso digitalak oinarri materiala du eta bere mugak agerian gelditzen hasi dira.

Carlos Delclós-ek (2025/01/14) azpimarratzen zuen Internetek botere harreman politiko, ekonomiko eta

kulturalak berregituratu dituela, indarrean dauden hierarkietan sakonduz. Baina agerian gelditzen ari dira bere egiturazko ahuleziak ere. Horren adibide argiak dira eduki hornitzaile banaketa sare (adibidez, Cloudflare) edo hornitze kate (adibidez, Nvidia) bakan batzuekiko mendekotasuna. Mendekotasun horiek tentsio geopolitikoaren iturri dira, Internet eta adimen artifiziala subiranotasun teknologiko eta territorialaren gudaleku bilakatuz. Era berean, baina, gudaleku horiek eta oinarrian dauden logikak identifikatu eta ulertzea da eraldaketarako aukera. Gakoa ez da teknologion desagerpena, zaila da eta berandu gabiltza horretarako. Kontua da teknologion bitartez egonkortzen diren botere sistemen konfigurazioei aurre egitea: mugak ezarri (erregulatu) eta berdintasunean, ekitatean, inklusioan eta demokrazian erroturiko alternatibak alde egin. Zorionez, adibideak egon badaude.

Adimen artifizial kooperatiboaren inguruan eztabaidatzeko bildu ziren Istanbulen mundu osoko adituak Cloudflare zerbitzuaren etena gertatu baino egun batzuk lehenago. Bertan gertatutakoaren kronika laburra egin zuen Platform.coop webgunean Trebor Scholz pentsalariak. Hausnarketaren oinarria Delclósen antzekoa da. Bere hitzetan: «*What came through again and again across the four days was a shared understanding: critique is essential, but critique alone does not push us further. It must be paired with experiments, infrastructures, solidarities, and the courage to build*». Finean, bere ustez, bueltak ari gara etika, gardentasuna eta adimen artifizialaren gobernantzari buruz. Aldiz, eztabaidan, erroko galderak beste batzuk dira: «*Who owns the infrastructure of AI? Who benefits? Who is harmed? Who decides?*». Eredu kooperatiboan sakontzera animatzen gaitu, erroko galderoi erantzuna ematen baitie. Jabetzak, bistan da, ez du bermatzen kudeaketa ona, justua, inklusiboa, demokratikoa... Besteak beste, Mondragoneko eredu aipatzen du, bere kontraesan guztiekin. Baina, azpimarratzen du, eredu kooperatiboak kudeaketa on, justu, inklusibo eta demokratikoaren aukera zabal-tzen duela, baita adimen artifizialaren kasuan ere. •

CELAYAN PAUSATU ZEN «ELAY»-A

Elay Taldeak Mexikon 25 urte bete ditu, bere txikian irakaspen handiak utzita

📁 **DIASPORA** / Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI

Elaia mendebaldean eta ainara ekialdean, Bergaran hegabera, den-denak enara hitzaren alderak. Afrikatik geuregana datoren hegazia, urtaroen alderketaren eta bizitzaren izaera ziklikoaren sinbolo. Bidaia luzea, dedikazioa, sena, etxera itzultzea...

Elay (Elkoro-Ayastui abizenen lehen bi letretatik) familia proiektu bat da. Jose Luis Elkoro Mari Carmen Ayastui emaztearekin batera sortutakoa, azken horren guraso Claudio Ayastui eta Eusebi Agirreren bultzadarekin 1965ean hegal egiten hasi zena. Elaiarena bezala, Elay enpresarena ere bidaia luze baten historia da. Erroak Antzuolan, gogoa Euskal Herrian, ia sortze beretik mundura begiratu duen enpresa batena. Dedikazioa eta irau-na, utopia eta ametsa, lehen-gai izan dituen.

Duela ia 60 urte Antzuolan kokatu zen tailertxoa, ikaragarririk koskortu eta ondo nazioartekotu da. Antzuolan bertan enpresaren instalazioak askoz handiagoak dira, eta mundura ere zabaldu du bere jarduna, Mexikora eta Txinara. Mundu osoan ditu bezeroak, bost kontinenteetako merkatuetan. Automobilgintzarako ebaketa zehatzean ekoiztutako piezak egiten ditu batik bat. Ikaragarririk lehiakor den sektorean, hainbat sistementzako piezak ekoiztuz: segurtasuna, transmisioa, eserlekuak, balaztak, karrozeria... Pieza horiek bezero globalen esku daude, marka ezagun askoren esku.

EKINTZAILE ETA AITZINDARI

Baina gaurkoa ez da soilik enpresa baten historia. Ezta

ekoizpen fabrika batek 25 urte bete izanaren ospakizun edo efemeride soil. Ekonomia sailean kokatu daitekeen berria den arren, beste gauza asko ere bada: diasporarekin lan egitean sortu daitezkeen aukeren erakusgarria; abertzale eta euskaldun direnek elkarrekin jardutean egin ditzaketen proiektuen kategoriaren adibidea. Bestalde, jende ekintzaile, utopiazale, aitzindariaren erretratua da, baita ezer ez zegoen tokian bidea zabaldu

zuen jendearen bidaiaren kontakizuna ere.

Mexikon kokatu zen ekoizpen fabrika bat hari bezala hartuko da orriotan, Guanajuato estatuko Celaya hirian kokatu zen Celaya ekoizpen planta, eta enpresa mundutik harago doan historia josiko da. Euskal Herria ardatz, pertsona abiapuntu eta helburu, langileak lehenetsiz, herriarekiko konpromisoa euskaraz baieztatu duen egitasmo baten historia da, eta bere protagonistena.

Mende laurden igarota, Elayk lur hartu zuen Celayan puntako enpresen ekosistema loratu da. Hamasei ekoizpen plantarekin, euskal enpresentzat Mexikoko lehentasuneko helmuga da, automobil fabrikatzaile handientzako osagai mekanizatuen hornitzaile nagusien egoitza. GAUR8



Sustraiak beti Antzuolan gorde ditu Elay enpresak, irabazi ekonomikoaren ikuspuntutik interesgarriagoak izan zitezkeen eta deslokalizazioa ekarriko zuten proposamenak albo batera utzita. Enpresa munduan ohikoa dena alboratuta, ez du beti gora eginez bidea egin. Krisiak ezagutu ditu, latzak ere bazuetan. Enpresa, izatez, definitziaz, beti delako proiektu berritu gabea eta inperfektua, irauteko etengabeko berrikuntzak eta moldaketak behar dituen. Inbertsioak eta berrinbertsioak ere bai. Eta, hartara, diru asko irabazi beharra ezinbestekoa bilakatzen da.

Elay-Amerikak 25 urte bete dituen arren, Euskal Herriatik kontinente hartara jauzi egiteko asmoa aurretik zetorren. Globalizazioaren aroan eremu geografiko berrietara zabaltzeko erabakia zen, nazioarteko bezero globalei erantzuteko apustua. Familia-enpresa txikia zenak, baliabide mugatuak zituenak, erabakia hartu behar zuen: arre edo so, zirt edo zart, bai ala bai.

Ausardia behar zen Mexikon ez zegoen teknologia batekin, ebaketa zehatzarena, bertan kokatzeko, krisi ekonomiko latzak eta ezegonkortasuna ia endemikoak ziren herrialdean. Are, egiari zor, etxe barruan, Antzuolan bertan, horrelako jauziek sorrarazten duten beldurren eta kontraktasunen erakusle, kritikak ez zirenean falta. Horrek baliabideak desbideratuko zituela, bertatik lana kenduko zuela, edo hitz teknikoagoetan esanda, deskapitalizazioa, deslokalizazioa ekarriko zituela, horrelakoak ere entzun, entzun zirelako.

Benetako asmoa, baina, oso bestelakoa zen. Elay Taldea indartzea, baita ekonomikoki ere. Eta horrela, Antzuola ba-

Enpresa, izatez, beti da proiektu bukatu gabea, etengabeko berrikuntzak eta moldaketak behar dituen, inbertsioak eta berrinbertsioak. Eta, hartara, diru asko irabaztea ezinbestekoa da

bestea. Bestetik, marka global bat indartzea zen, beste kontinenteetan hornitzaile fidagarria izango zena, horrek dakarren balio erantsi eta aberastasun guztiarekin.

Behin zuzendaritzak jauzia egiteko erabakia hartuta, ondorengo arazoa fabrika non kokatu izan zen. Mexikon izan behar zuen, baina ezezagun zuten herrialdea, ezezagun zituzten bertako legeak eta kodeak. Eta hor, berriz ere, euskal mundua erdigunera etorri zen, bi abertzale handi, Euskal Herriaren aldeko bi astro lerratu zirelako: Jose Luis Elkorok Unamuno eta Yon de Luisa Saseta.

ASTROAK LERRATUTA

Txiripa batek juntatu zituen biak. Elkorok Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko kidea zen, eta GALEk Santi Brouard Bil-

Baliabide mugatuko familia-enpresa txikian Ameriketarako jauziak kritikak sortu zituen, benetako asmoa Elay Taldea indartu eta Antzuolako fabrika babestea zenean

boko kontsultan hil ondoren, honen zenbait ardura hartu zituen, besteak beste “enbaxadore” izatearen ardura. Munduan barna deportatutako errefuxiatu politikoak sostengatzeko, diplomazia politikoa egiteko eta euskal diaspora lantzeko, besteak beste. Eta hain zuzen, lan politikoa egiten zebilela, Mexiko Hiriko Euskal Etxean ezagutu zuen Elkorok Yon de Luisa, euskal diasporaren eragile handia.

Jesus Luisa Esnaola erreteriarren semea zen Yon. Aita Eusko Gudarosteko koman-

dantea izan zen, koreografo eta dantzari aparta, Agirre lehendakariaren gobernuan Barne sailburuordea, Telesforo Monzonen eskuin eskua. Ama, berriz, Iruñe Saseta Etxeberria, Candido Saseta Eusko Gudarosteko komandante gorena- ren arreba zen.

Santander erroi eta gero, Yon de Luisaren aita 1937an iritsi zen Lapurdiko Sarara eta Ipar Euskal Herrian ezkondu zen Iruñe Sasetaekin. Bi seme izan zituzten, Yon bera, Donibane Lohizunen 1937an sortua eta Unai, urte bat geroago Bi-

garten jaioa. Yon eta anaia haur zirela iritsi zen familia errefuxiatuta Mexikora. Beti, bihotzaren barru-barruan zituen bere bi herriak: Mexiko eta Euskal Herria. Euskaldun eta abertzale porrokatua, Euskal Herriaren alde elkartasun ekintzetarako beti prest azaldu zen. Laguntza politikoan edo humanitarioan, anai-arreba euskaldun bat beharrean bazen, hura babesteko beti pronto.

Mexikoko prentsan argitaratu zenez, CISEN zerbitzu sekretuek Yon de Luisa 1980tik aurrera herrialdean zeuden euskal errefuxiatu politikoe- kin lotzen zuten, honek beti ukatu zuen arren. Yon eta anaia Unai Hondarribiko hilerria etorri ziren 2008an, As- turiaseko Arecesen aurkitu zituzten Kandido Saseta- ren

gorpuzkiei bertan lur emateko ekitaldian parte hartzeko. Yonen errautsak ere Jaizkibelen zeruratu zituzten.


Bada, Elay Ameriketara sus- traitu bazen, amets hau gauza- tu bazen, besteak beste Yon de Luisari esker izan zen, hura izan baitzen ezinbesteko per- tsona. Berak proposatu zuen Celaya hiria, bere izena jarri zuen legeak mexikarrak bazki- de izatea eskatzen zuelako, be- re kontaktuak eta agenda es- kaini zituen sasiak eta trabak bidetik kentzeko. Izatez, bera izan zen Mexikoko Celaya ekoizpen fabrikaren lehen zu- zendaria. Dudarik gabe, histo- ria honetan letra larritan ida- tzi beharreko pertsonaia da.

Baina ez da bakarra. Elkorok-ekin batera aipamen berezia merezi du Santi Zabaletak, Elayren zuzendari izandakoak.

DIASPORAREKIN LANDUTAKO AUKEREN ERAKUSGARRIA

Herri Batasuneko mahaikide legez, lan politikoa egitera Mexikora joan zenean hiriburuko Euskal Etxean ezagutu zuen Jose Luis Elkorok Yon de Luisa. Elkororen familia- enpresan aspaldi zebilen gogoan Ameriketara hedatzeko beharra, eta ametsa gauzatzeko nahitaezkoa izan zen Yon de Luisa. Legeak bertako bazkide bat izatea eskatzen zuen, eta Yonek eskaini zuen bere burua. Are, bera izan zen Celaya ekoizpen fabrikaren lehen zuzendaria. Bere ekarpena eta dedikazioa ezinbestekoak izan ziren proiektuaren garapenean. Beti Euskal Herria ardatz, beti euskal jendea lagunduz, beti abertzale eta euskaldun jokatu.

Lan politikoan ezagutu, harreman profesionala landu eta lagun min bihurtu ziren bi lagun historia diaspora lantzeak sor ditzakeen aukeren erakusgarri ederra da. Ez bakarrik diasporako Euskal Etxeetan, baita euskal herentzia dutenekin eta euskaldunen lagun direnekin ere. Maila guztietan, diplomazian, enpresan, kulturen... Ildo horretan, Celaya fabrika aitortzen bat da, aurrekoen lanarena, ireki daitezkeen aukerena. Ez delako bakarrik politika edo enpresa, joan-etorria, trafikoa laguntzea da, jendearena, ideiena, kulturarena. Estrategikoa da Euskal Herriarentzat. Horra bere txikian duen esanahi handia.



Yon de Luisa Saseta eta Jose Luis Elkorok, Celaya proiektuaren aitzindari eta bultzatzaile finak. Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Jakina, Ameriketako apustua ez zen irabaziko Antzuolatik lagundu izan ez balitz, urteetan esfortzu hori maila eta modu askotan sostengatu gabe, finantzaketa, laguntza teknikoa, hilabeteak eta urteak Mexikon lanean egon diren langileen ekarpena. Baina guztien artean, nabarmen, Santi Zabaleta ageri da, sortze bere-
tik gidari eta akuilu, langile fin eta nekaezin. Inondik ere, bere eskukolpea ikaragarria izan da. Are, bere kide Jose Luis El-koro kartzelan egon zen urteetan, beste mila ardura politikoetan, epaiketetan eta abarretan, Zabaletak ez zituen soilik zuzendari postuak eskatzen zizkion lanak bete, per-
tsona eta lagun bezala bere izaera eta balioa erakutsi zituen garai latzenetan ere.

Elkoro errepresioaren jomugan egonik, hura babestea zein arriskutsua zen jakinda ere, sekula ez zuen zalantza izpirik izan. Babes osoa eskaini zion langileen aurrean, baita enpresak zituen gainontzeko

interese taldeen aurrean ere. Antzuolan, Mexikon, nonahi eta zernahirako. Santirekin benetan, betiko, eskertua egote-ko arrazoiak ugariak dira.

Bi norabideko prozesua

Bada, esan bezala, Yon de Luisak hala proposatuta eta bidea erakutsita, Elay Taldea Guana-juato estatuko Celaya hirira heldu zen. Celaya, jakina, euskarazko “zelaia” hitzetik eratorritako toponimoa da; lur laua, belazea, larrea... zelaia! Euskal abeltzainek XVI. mendean sortutako hiria da, indigenen erasoetatik babesteko

Celay, diaspora lantzeak sor ditzakeen aukeren erakusgarri ederra da. Ez delako politika edo enpresa bakarrik; joan-etorria da, trafikoa laguntzea da, jendearena, ideiena, kulturarena

Mexikoko fabrikaren ardurak hartzeko eta ekoizpen tekniketan gaitzeko hainbat langile formatu ziren Antzuolan. Bada ezkondu eta oraindik Antzuolan bizi den mexikarrik

Celay fabrikaren irudia, ezer ez zegoen zelaian lekutu zen lehen euskal enpresa. Egun bertan dagoen hiri industrialak ikusita, aitzindari edonondik begiratuta ere. GAUR8

eta ebanjelizazioa bultzatzeko asmoz. Bajio lautada zabalean kokatua, Laja eta Apaseo ibaiek zeharkatua, itsas mailatik 1.700 metroko altueran kokatua, zereala ekoizteko lurralde emankorra da. Arrazoiz deitzen diote «*granero de la República*», hau da, Errepublikaren aletegia.

Duela 25 urte, baina, industriaren ikuspuntutik, Celaya basamortua zen, hutsak zeuden terrenoak besterik ez zeuden bertan. Orduko argazkiei begiratzuz, duela bost mende euskal abeltzainek ganaduaren larrerako erabiltzen zituen lur haietan Elay enpresaren Mexikoko ekoizpen fabrika ezarriko zela erabakitzea, ausart, oso ausart jokatzeari zen. Senek jokatzeari, apustua irabaztekoa zela ez baitzegoen batere argi, ezta inon idatzita ere. Urteekin milaka eta milaka metro koadroko industria hiri bilakatu den lekuan, belardiak eta ganadua baino ez zeuden.

Celay ekoizten 2000. urtean hasi bazen ere, sozieta-tearen sorrera eta fabrikaren eraikuntza urte bat lehenago abiatu ziren. Fabrika eraiki eta martxan jartzeko, Euskal Herri-
tik joan-etorriak etengabeak izan ziren, Elayko langileek egonaldi luzeak egin zituzten Celayan. Urte guztiotan, Antzuolako plantako langile askok lan egin dute Celayan, hainbat urtetako egonaldiak eginez batzuek.

Baina bi norabideko prozesua izan zen. Mexikoko fabrikaren ardurak hartzeko eta ekoizpen tekniketan gaitzeko hainbat langile formatu ziren Antzuolan. Urtebetez ia hoge-i mexikar Antzuolan bizi-
tzen egon ziren, lanerako ahalmenek gain, gure herriaren kultura eta egiteko mo-

duak ere barneratzeko. Bada, badenez, ezkondu eta oraindik Antzuolan bizi den mexikarrik.

Elay Amerika edo Celay 44 langilerekin hasi zen, egun 300 dira. 10 milioi euroko inbertsio batekin hasi zen, egun 40 milioi dira inbertitu direnak. Bistan da Mexikoko Celay ekoizpen planta Elay Talde osoaren oinarri oso inportantea dela, besteak beste bezeroek Elay mundu osoko hornitzaile global bezala aitortzen lagundu duelako.

Eta bidea lan baldintza duinak bermatuz jorratu da, Mexikoko izaera eta kultura errespetatuz eta bultzatuz, Mexikon aberastasuna sortuz eta banatuz. Elay Taldearen sortze bereko printzipioak dira, ibilbide luzean behin eta berriz baieztatutak.

Bestalde, aipatu behar da proiektuak beti izan duela euskal diaspora ondoan, beti lagun, beti bultzatzen, beti adoretzen. Horren erakusgarri dira, duela 25 urte euskaldun jatorria edo kontzientzia zuten bertako zenbait negozioren jabeek prentsan argitaratutako iragarkien bidez Celayri, Santi Zabaletari eta Yon de Luisari egindako ongi-
etorria. Hori sortze beretik, baina bidaia honetan guztian lagun izan ditu De Luisa Sasetar familia, beti ondoan eta prest, eta baita oso bereziki Celayako Arrano elkarte ere.

Euskal enpresen ekosistema

Azaroak 10ean 25 urte bete zituen Mexikon aurreneko ebaketa zehatzaren teknologia ezarri zuen Celay ekoizpen fabrikak. Ez ziren ospakizunak eta ekitaldiak faltatu. Ez baita gutxiagorako. Industria mailan basamortu zen lurraldean, ameslari edo utopiko haien

grinak, emaitza ikusgarriak ekarri dituelako. Gaur egun, herrialde aztekako automobilgintza industria nagusien egoitza da Celaya. Mexikon dauden automobil fabrikatzaile handientzako osagai mekanizatuen hornitzaile nagusiak bertan daude.

Eta hantxe bertan daude ere, Celayren ondoan, Euskal Herriko enpresa garrantzitsu asko ere. Gutxi batzuk aipatzearren, Bergaran erroak dituen Metagra Group, hotzeko estanzazioan espezializatua, automobilgintza sektorerako piezen hornitzailea; Tolosako Panelfisa sozietate kooperatiboa, estanzazio bidezko elementuen hornitzaile globala, bereziki automobilgintzarako; Bilbon egoitza duen CIE Automotive enpresa-taldea, automoziorako piezak fabrikatzen dituen; Gamesa be-
ra...

Broma gutxi. Egun, Celaya da euskal enpresentzat Mexikoko lehentasunezko helmuga, hamasei ekoizpen fabrika bertan kokatu baitira dagoe-neko. Eta, oro har, Guanajuato estatuan hemeretzi euskal enpresa kokatu dira, gehienak automobilgintza sektorekoak, guztira hiru mila langile baino gehiago dituztenak. Duela 25 urte basamortu industrialia zen eremuan Elay bidea urratzen hasi zenetik, panorama asko aldatu da. Euskal enpresentzat Celaya ekosistema erakargarri bihurtzeraino.

Bestalde, oso kontuan hartu behar da, Txinaren ondoren, Mexiko dela munduan euskal enpresa gehien dituen herrialdea; 210 baino gehiago daude ezarrita bertan jada.



Eta Elay Taldeak asko aurreratu du Celayan, edonondik begiratuta ere. Fabrika indartuz, langileen garapena bultzatuz, baldintza egokiak eskainiz, Antzuolako laguntzailearekin beti. Bezeroen aitorpena irabazi du, eta, gaur egun, dudarik gabe, lehen mailako hornitzailea da Ford, General Motors, Volkswagen, Nissan, Mercedes Benz, Honda, BMW edo Tesla bezalako taldeentzako. Urtero milioika pieza fabrikatzen ditu Mexikoko Celay ekoizpen fabrikan marka horietako autoentzat.

Elay Taldeak egoitza nagusia Antzuolan izaten jarraitzen du, bertan metatzen dira esperientzia eta memoria kondentsatua, bertan dago ekoizpen-planta ere bai. Makina bat bertigo eta beldur

Industria mailan basamortua zen Celaya euskal enpresen helmuga bihurtu da. 16 ekoizpen fabrika ezarri dira, automobilgintzakoak gehienak, 3.000 langile baino gehiagorekin


Elaiarena bezala, Elay enpresaren Amerikarako hegaldia ere urrutira heldu da: enpresa garatua izateraino, puntako teknologiarekin eta konpromisodun langileekin


sortu zituen nazioartekotze prozesuaren barruan, taldearen atzerriko lehen fabrika izan zen Mexikokoa, eta 2013an beste bat zabaldu zuen Txinan. Egun, 60 bezero ezberdin ditu mundu osoan eta 30 herrialdetako merkatuetan dago. Bost kontinenteetako merkatuetan, European, Amerikan eta Asian estrategikoki kokatutako bere hiru ekoizpen fabrikeri esker.

Elaiaren hegaldia Afrikatik Euskal Herrira bezala, Elay enpresaren hegaldia ere urrutira heldu da, Euskal Herritik Ameriketara: enpresa garatua izateraino, puntako teknologiarekin, konpromisodun langileekin, lehen mailako bezeroekin. Eta prest daude haize bolada gogorrez eta mehatxuz lepo datorren etorkizunari aurre egiteko. Jarrera eta ausardia ez dute falta. Dena beharko dute. Bidaia on.

Goian, Celay fabrikari ongietorria egiteko euskal diasporako enpresariak prentsan argitaratu zituzten iragarkiak. Eskuinean, Vicente Fox, garaiko Mexikoko presidentea, eta Santi Zabaleta, Elay Taldeko zuzendaria.

GAUR8





Israelek berriki aske utzi dituen palestinar atxilotuen testigantzak lazgarriak dira. Tortura fisiko eta psikologiko latzak deskribatu dituzte, tartean, bortxaketak –penetrazio analak, horretarako txakurrak, botilak eta makilak erabilia; sarpen baginala–, derrigortutako biluztasuna, irainak, grabaketak, jipoiak...

«Bildu ditugun lekukotasunek Israelgo Okupazio Indarrek (IOF, ingelesezko siglak) atxilotu palestinarren kontra sexu tortura modu sistematikoan erabiltzen dutela erakusten dute. Presoen duintasuna eta nor-tasuna suntsitzea dute helburu. Ez dira testigantza eta ekintza isolatuak. Genozidioaren testuinguruan Israel aplikatzen ari den politika sistematikoa da. Milaka palestinar giltzaperatuta daude Israelgo espetxeetan edo atxiloketa gune militarretan. Israelek ez du baimentzen nazioarteko behatzaileek edota Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak presoen egoera gainbegiratzea. Palestinako Gi-

SEXU TORTURA, GENOZIDIOAREN BESTE ERTZ BAT

Bortxaketak eta jipoiak salatu dituzte berriki aske gelditu diren gazatarrek

PALESTINA / Ainara LERTXUNDI

Biluztasuna, jipoiak, bortxaketak –zakilarekin, txakurrekin, botilekin, makilekin–. Palestinako Giza Eskubideen Erakundeak (PCHR) Israelek Gazan atxilotu eta berriki aske utzi dituen gazatarren testigantzak aditzera eman ditu. Horien artean, 42 urteko emakume batena, 35 eta 41 urteko bi gizonezkorena, eta 18 urteko gazte batena.

za Eskubideen Erakundeko abokatuek eta ikerlariak lekukotasun lazgarriak dokumentatu dituzte. «Azken bi urte hauetan, Israelgo Okupazio Indarrek milaka zibil atxilotu dituzte Gazako Zerrendan oinarri legalik gabe, soilik zigor kolektibo gisa

eta palestinarrek umiliatzeko eta ahalik eta min fisiko eta psikologiko handiena eragiteko asmoarekin», nabarmendu du PCHRk aditzera eman duen txostenean.

N.A. 42 urteko emakume palestinarra da. 2024ko azaroan

atxilotu zuten Gazako iparraldeko *checkpoint* batean. Lau aldiz bortxatu zuten, biluzik zegoela argazkiak atera zizkioten, jipoitu eta elektrodoak jarri zizkioten irain lizunen artean.

Honako hau da PCHRko abokatuari kontatu ziona: «Egun-sentian soldaduen garrasiak entzun nituen, goiz horretan otoitz egitea debekatuta zegoela oihukatzen. Nire atxiloketaren laugarren eguna zela uste dut. Soldaduek ezagutzen ez nuen gela batera eraman ninduten, begiak estalita. Arropa kentzeko agindu zidaten. Metalezko mahai batean jarri ninduten, bularraldea eta burua metalaren kontra estutuz. Eskuak ohera lotu eta hankak modu bortitzean separatu zizkidaten. Zakil bat nabaritu zuen nire ipurtzulotik sartzen. Garrasika hasi nintzen, bizkarrean eta buruan jotzen hasi zitzaizkidan. Nire ipurtzulo barruan nola eia-kulatzen zuen sentitu nuen. Garrasi egiten jarraitzen nuen, eta haiek ni jipoitzen. Kamera baten zarata entzun nezakeen; pentsatzen dut grabatzen ari zirela. Bortxaketak hamar minutu iraun zituen».

Ordubetez posizio berean egon ostean, «biluzik, eskuak metalezko eskuburdinekin ohera lotuta, aurpegia ohearen kontra eta oinak lurrean, berriro bortxatu ninduten, baina baginatik. Hainbat soldadu zeuden gelan. Barre egiten entzuten nituen eta kamera baten klikak ere entzuten nituen, argazkiak egiten egongo balira bezala. Bortxaketa oso azkarra izan zen eta ez zen eia-kulazio-rik egon. Ezin dut deskribatu zer sentitu nuen. Hiltzea desiratu nuen une oro. Logela berean utzi ninduten arroparik gabe ordu luzez. Soldaduak kanpoan barrezka eta hebreeraz hitz egiten entzun nitza-

Israelgo Ofer kartzela militarra, Jerusalemetik gertu. EUROPA PRESS

keen. Baginatik bortxatu ninduten berriz ere. Kontra egiten saiatzen nintzen bakoitzean bu-ruan eta bizkarrean jipoitzen ninduten. Ordubetetik gora pasatu ostean, aurpegia estalita zuen soldatu bat sartu zen. Begietako benda kendu zidan; berak ere aurpegia bistan utzi zuen. Errusiarrak zela esan zidan, zakila atera eta masturbatzeko esan zidan. Uko egin nion. Aurpegian jo eta bortxatu egin ninduen. Hiru egun pasa nituen gela horretan. Lehenengoan bi aldiz bortxatu ninduten; bigarrean, beste bi, eta, hirugarrean, biluzik utzi ninduten atetik begiratu eta grabatzen zuten bitartean. Soldadu batek nire argazkiak sareetan zabalduko zituztela esan zidan. Hilekoa jaisten hasi zitzaidan, orduan arropa jantzeko esan eta beste gela batera eraman ninduten».

ENTRENATUTAKO TXAKURRAK

Al Shifa ospitalean atxilotu zuten A.A. 35 urteko gizonezkoa, 2024ko azaroan. 19 hilabetez egon zen preso Sde Teiman gune militarrean. «Erabat biluzik geunden. Txakurrekin sartu ziren soldaduak, gure gainean pixa egin zuten. Horietako txakur batek bortxatu ninduen. Horretarako entrenatuta zegoen; txakurraren zakila ipurtzuloan sartzen nabaritu nuen. Bitartean soldaduek jo egiten ninduten eta aurpegira gas-negargilea botatzen zidaten. Txakurraren erasoak hiru minutu iraun zituen gutxi gorabehera, baina tortura saioa hiru orduz luzatu zen. Jipoien ondorioz, guztiok zauriak genituen. Umiliazio izugarria sentitu nuen; psikologikoki apurtu nintzen. Kontrola galdu nuen. Sekula ez nuen pentsatu horrelakorik pairatuko nuenik. Medikuek batek anestesiarik gabe zazpi puntu eman zizkidan. Ubeldurak nituen eta

gorputz-adarretan hausturak, baita saihesten batean ere».

Kamal Adwan ospitalean des-
plazatuta zegoela antzeman zuten T.Q. 41 urteko gizonezko palestinarra, 2023ko abenduan. 22 hilabetez torturatu zuten, tartean sexu tortura sufritu zuen. Emaztea bere aurrean bortxatzearekin ere mehatxatu zuten.

«Soldadu batek bortizki bortxatu ninduen egurrezko makila bat ipurditik sartuz. Minutu bat pasatakoan atera egin zuen, baina ondoren berriro sartu zuen indar gehiagorekin. Oso ozen oihera egin nuen. Ahoa irekiarazi eta makila sartu zidan, hura miazkatzeko aginduz. Estutasunak hartuta, konortea galdu nuen. Emakume militar bat sartu zen eta gu gehiago ez jipoitzeko agindu zien. Eskuak askatu zizkidan eta peto txuri bat eman zidan jantzeko. Baso bat ur eman zidan edateko. Ipurdian odola sumatzen nuen

Palestinako Giza Eskubideen Erakundeak torturaren biktimei berehalako laguntza psikologikoa eta fisikoa emateko eskatu die Aginte Nazionalari eta Gazako agintariei

Aske gelditutako ehun presoren lekukotasunak bildu dituzte txosten batean. Guztiek tortura bortitzak, tratu krudelak eta bizi-baldintza gizagabeak deskribatu dituzte

Pasa den urriaren 14an, Israelek aske utzi zituen presoek harrera egin zieten Naser ospitalean, Khan Yunisen, Gazako hegoaldean. XINHUA / EUROPA PRESS

eta komunera joatea eskatu nion. Begietako benda kendu eta zapi batzuk eman zizkidan. Garbitzerakoan papera odolizatuta zegoela ikusi nuen. Odola egiteari utzi nionean, petoa jantzi nuen. Komunikatzen atera bezain laster, begiak estali zizkidan eta plastikozko lokarri batzuekin eskuak sorbaldaren atzean lotu».

Gaza Humanitarian Foundation erakundearen «laguntza» banaketa gune batetik gertu

atxilotu zuten M.A. 18 urteko gazatarra. «Ni eta beste sei atxilotu belauniko jarri gintuzten. Botila bat sartu zidaten ipurtzuloetik lau aldiz. Saio bakoitzean, hamar aldiz sartu eta atera zuten. Bi alditan niri soilik sartu zidaten, baina, beste bietan, beste preso batzuekin batera bortxatu ninduten; batean beste sei presorekin nengoen, eta, bestean, hamabirekin. Botila sartzen zidaten bitartean, besteek nola egiten zieten ikus nezakeen. Gure atzean txakur bat zegoen; gu bortxatzeko prest zutela zirudien. Gure duintasuna suntsitu dute. Hau gertatu aurretik nire ikasketekin jarraitu nahi nuen, baina orain esperantza oro galdu dut».

Nazioarteko legedia urratzeaz gain, atxilotuek deskribatutako torturak «genozidio ekintza gisa» sailka daitezkeela ohartarazi du PCHRk: «Gizatalde jakin bateko kideei min fisiko eta psikologiko handia eragiteko helburua dute ekintzok, baita pertsonoi bizitza osorako ondorioak eragitea ere».

Nazio Batuei, bereziki torturaren eta genozidioaren aurkako kontalari eta adituei, eta giza eskubideen aldeko erakundeei hots egin die PCHRk berehalako neurriak har ditzaten atxilotu palestinarren kontrako tortura sistematikoak ekiditeko eta «Israelek modu arbitrarioan atxilotu dituen palestinarren askatzeko». Milaka preso hiltzeko arriskuan daudela ohartarazi du, azaroaren 3an, Knesseteko Segurtasun Nazionalako Batzordeak heriotza zigorra ezartzeari baimentzen duen lege zirriborroa onartu baitzuen. Desagertuta dauden atxilotuekin zer gertatu den jakitea eta Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak atxilotuak mugarik eta baldintzarik gabe bisitatu ahal izatea exijitu du PCHRk.





Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Hostoak kaleetan

Azaroan udazkena iritsi da, kasik bat-batean. Zuhaitzen hostoek iragarri dute, gure buruetako ileen erorketarekin batera. Milioika hosto egunero gure kaleen gainetik dantzan eta bulebarren izkina desberdinetan pausatuz behin dantzaldia bukatutakoan. Ederra da ikuspegia hostoek berdeguneetan egiten dutenean lurreratzear, orban horixka eta gorrixxako alfonbrak zabalduz. Kaleen irudi betikotuan eragiten dute, aldi baterako berritasun elementua eskainiz. Urtaroen aldaketa igartzea oso garrantzitsua omen da gure gorputzentzat, eta hostoen erorketek momentuari irudi eta estetika ematen diete. Hostoak baino lehen, fruituak ere izan dira lurrian jasotzeko. Oparotasun une bat gure aurrean, hainbat fruitu hiritarren elikadura balioaz jabetuko bagina.

Azaroko astelehen bat, goiz partean, bezerorik gabeko tabernaren kanpoaldean, tabernariak eskuko xurgatzailea du eskuetan. Etengailuan *on* jarri eta modu zaratsuan hasi da tabernako ateen eta mahaien inguruan pilatu diren hostoak xurgatzen. Xurgatzaileari pistolaren antza hartzen zaio, molestatzen duena begi bistatik desagerrarazteko boterea ematen dio eskuari eta gizonari, kentzeko ekintzan plazera aurkitzen duena. Kaleetako hostoak, animaliak, pertsonak kanporatzeko ohitura hori. Astelehen goiz bat igarotzeko modua tabernariarentzat. Argitaratuko balira udazkeneko egunetan lorezaintzako langileek kaleetako hostoen garbiketan xahutzen duten denbora eta hostoen garbiketara bideratzen den dirua! Kaleak garbitzeko mandatua dute lorezainek.

Udazkeneko irudi bat baino gehiago dira hostoak kaleetan. Hostoen pilaketa udazkeneko goxo igarotzeko hiriko animalia eta intsektu askoren bizilekua da. Hostoen pilaketek perfume natural berezia eskaintzen dute. Hostoak lurraren gainean erortzean ongarritze naturalaren prozesua egiten du-

te, berriztatze zikloaren onura guztiak aprobetxatuz. Balio handiko humusa baliabide naturala da, hirietako lurra ongarritzeko inbestitzen den diru eta denbora ordezkatzeko propio. Artisautza naturalak hostoak erabiltzen ditu eko-printing, tindu edo eskulanetarako baliabide gisa. Utz diezaiozun zuhaitzen hostoei hondakin natural deitzeari, arren.

Etorkizuneko agendetan zuhaitz kopurutan zehazten dute egin beharreko aldaketa. Zuhaitz landaketaren mandatua daukagu, oraindik zuhaitzekin egin beharreko bizikidetzara ondo lortu gabe. Hosto bustien irristatzeko beldurrak alde batetik eta kaleetako garbizaletasun estetika-kirurgikoak bestetik ez dute laguntzen. Adostasun maila altua baldin badugu landaredia gehiago kaleetan izateak gizakion bizi kalitatean duen eragin positiboan, landarediarekiko eta animalia-erreinuarekiko bizikidetzan lan egin beharko dugu politikatik, hezkuntzatik, kulturatik.

Hiririk aurreratuenetan hostoak kaleetan pausatzen dira udazkenean, ez dira erretiratuko arriskurik sortzen ez den lekuetan. Keinu adierazgarritzat jo daiteke bizikidetzaren, biodibertsitatearen eta ekologiaren izenean. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Ramon SOLA**

San Mameseko oasia

Ez dakit zehazki nork izan zuen euskal selekzioaren eta Palestinaren arteko partida antolatzeko ideia, baina zorionik beroenak hemendik. Bejondeizula, lagun! San Mamesen bizi izandakoa hamarkada asko pasatu arren ahaztuko ez delakoan nago.

Itxura ona zuen gauak aldeztu aurretik, baina edozein aurreikuspen motz geratu zen maila emozionalean. Sentimendu uholdea izan zen, katarsia, eta horrekin batera gertakari politiko liluragarria, eta etorkizunerako hazia ere bai.

Hortik astebetera, begien bistakotik haratago ondorio batzuk ateratzea merezi du, akaso. Lehendabiziko galdera honetatik abiatuta: zergatik sortu du Gazako tragediak horrenbesteko elkartasuna Euskal Herrian, hasiera-hasieratik? Palestinaren aldeko tradizio historikoa dago, egia da. Bidegabekeriaren aurkako konzientzia sozial ezkertiarra ere bai, ados. Baina osagai gehiago behar dira hain babes handia azaltzeko, oharkabean pasatzen direnak. Nire irudiko, Euskal Herriak Palestinaren ispi-luan ikusten du bere burua, Goliathen aurka diharduten David direlako biak, Estatu handi, militarizatu eta polizialez inguratutako herriak. Borroka desorekatua da, baina oraindik ez gaituzte garaitu, ez txikitu, ez otzandu, ez bata, ez bestea. Euskal Herriak eutsi egiten dio bideari, eta Palestinak ere bai, porrot handiak eta garaipen txikiak tarteko. Zugazartek maisuki erakutsi zuen ibilbide hori bihurtuz jositakoa dela: deigarria da genozidioa jasaten duen herrialdeak selekzio ofiziala izatea eta bakean bizi denari selekzioa izateko eskubidea ukatzea.

Erresistentzia espiritua belaunaldiz belaunaldi berpiztu ohi da. Oso pozgarria izan zen Bilbon nerabe kuadrilla osoak kamiseta berdeekin jantzita ikustea, telebistan existitzen ez den elastiko hori hain zuzen ere, youtuberrentzat ezezaguna dena, Tik-Tok-en ikusezina... Haur txiki askok betiko gogoratuko dute euren bizitzan ikusi zuten lehen futbol partida euskal selekzioarena izan zela, 2025eko azaroko larunbat gau batean. Transmisio emozionala ezagutza hedatzea be-

zain garrantzitsua da, eta indar handiagoa du.

Hirugarren ondorioa: larunbateko arrakasta guztiz transbertsala izan zen. Gure Esku, Gu Ere Bai eta Gernika-Palestinaren aldarrikapenek bat egin zuten modu naturalean, elkarrekin lotzen dituen haria sendoa delako: eskubideak eta askatasuna, hain simple eta hain erraz. Norgehiagokaren inguruan Imanol Pradales lehendakariak egindako adierazpenak Arnaldo Otegi sinatutakoak zitzakeen, berdin-berdin. Horrek frogatzen du euskal herritarren gehiengoak puntu horretan dagoela eta zenbait alderdi horretara egokitu beharrean direla. Aurreko garaietan, ekimen hau hainbeste babes ofizialekin aurrera atera ahal izango zen? Ardanzaren aroan ezetz esango nuke. Eta Urkullurenean? Zalantzan naiz. Gauza batzuk aldatzen ari dira, eta, sarritan gertatu bezala, gizarte politikarien aurretik doa.

Ez dakigu ultraeskuinak eragindako basamortuko zeharkaldia motza edo luzea izango den. Euskal oasia hor egongo da; ureztatu eta mimatu beharra, ere bai

Berritasun edo aurrerapen horietako bat lurraldetasunaren ingurukoa da. Duela 15-20 urte eskas, euskal selekzioak urtero Gabonetan partida bat jokatzen zuten, biziki zaila zen futbolari nafarrek parte hartzea. UPNk eta "Diario de Navarra"-k kontrako presioa egiten zuten, konpromisoak hartu behar ziren eta denak ez zeuden prest. Oso argigarria da abertzale eta euskaldun izateagatik nabarmentzen ez diren jokalariek hitzordura batu izana, gaur egun nafar arrunt baten-tzako Euskal Herria ordezkatzeko naturala, positiboa, desiragarria ere badelako.

Azken ondorioa: ultraeskuinaren gorakadak basamortuan zeharreko bidaia abiatzen du mundu osoan. Ez dakigu zeharkaldi hori motza edo luzea izango den, baina basamortu horretan Euskal Herria izeneko oasi bat dagoela gauza segurua da. Hori bai, ureztatu eta mimatu beharra dago, San Mames bera bezala. •

Ondarroako emakumeen kastak badu sona, baina ez da itsasoak edo haizeak sortutako kasta bakarrik, antolatuz eta ekinez egiten diote aurre bizitza duinagoak izateko bideari. Horren adibide dira Boga Boga elkarteko andreak, zahartzaro feminista bat bizitzeko grinarekin daramatzate borrokan 30 urte, ikasten eta gozatzen. Eta elkar-teak hiru hamarkada bete dituen honetan, dokumental bat ere egin diete aitortza moduan eskualdeko neska gazteek ondarroarrei: “Zahartzaro feministarantz Boga Boga”. Elkar-tearen eta bertako kideen ibilbidea jasotzen du ikus-entzunezkoak, aldarri sendo eta algaraz jositako anekdotak tartekatuz.

Etxelilan elkartu ohi dira beraiek, eta GAUR8k ere bertan egin du hitzordua; harro erakutsi digute beraien etxea, barrualdea lorez beteta dago, eta morez margotuta, «ederra dago, e!» esan eta liburutegiko mahaiaren bueltan eseri gara Arantzazu Arrasate Arrizabalaga, Miren Itziar Gallastegi Zubikarai eta Agurtzane Iriondo Lejardi alde batetik, Boga Boga elkarteko kideak. Eta beraien ondoan, kamera aurrera eramane dituzten Mijo Lizarzaburu eta Udane Barinagarrementeria dokumentaleko zuzendariak.

Iriondo da elkartean denbora gehien daramana, Etxelila eraikitzen eta Boga Boga zabaltzen ikusi duen begi pare, argi-itzalekin ikusi ere: «Udaletxean sortu zen halako min bizi bat esaten zuena emakumeek etxe bat behar genuela. Orain gauden hau, orduan, Etxe Zuri zen, eskolaurreko

eraikin bat, eta hemen egin zuten Etxelila. Hizkuntza aldatu genuen, erdaratik euskara pasa ginen, eta gaztelaniaz egiten zuten pertsona asko kanpoan geratu ziren... Gustatuko litzaidake jakitea zer ez dugun ondo egin, non sartu dugun hanka, ateratzeko. Lehen andre kuadrilla handi bat zen, zergatik jaitsi gara 15era?». Pozez bizi du egungo Etxelila, baita martxan dituzten proiektuak ere, baina etengabeko autokritika eta ambizioa dira bere ezaugarri.

Joan-etorriekin ibili da Arrasate Boga Boga elkartean, batez ere zaintza lanei lotuta egon behar izan duelako urte askoan, baina azken urteetan berriro ere gertutik egin du bidea: «Orain sei urte senarra hil zen eta nik ez dakit nondik irteten zaidan indarra, baina hemen nago berriz».

Duela bi urte hasi zen parte hartzen Gallastegi. Ondoan eserita duen Iriondo aurrez ezagutzen zuen, eta berak animatuta, «ikasteko gogoarekin» hurbildu zen kideengana.

Oso bide ezberdinetatik jakin zuten Boga Bogaren berri Barinagarrementeriak eta Lizarzaburuk. Graduak praktikak Etxelilan ordutako dinamizatzaile zenarekin egin zituen lehenak: «Elkar-tearekin flipatu egin nuen, eta maitemindu egin nintzen. Oso harrituta geratu nintzen adin horretako andreak ikustean Silvia Federiciren inguruko eztabaidetan, Judith Butlerren ideien inguruko eztabaidetan... Denora animatzen ziren, zelako giro ona zuten beraien artean! Balio handia du elkar-te honek». Ostein, dinamizatzaile modura urtebete egin zuen eta «intimitateko elkarriketara sarbide bat izan nuen, eta



ZAHARTZARO FEMINISTA

Ondarroako andreek zahartzaro feministaren alde egiten dute boga

📁 JENDARTEA / Iraitz MATEO GOGORZA

Zahartzaro aktiboa, politikoa, lagunartekoa eta feminista irudikatzea ez da errazena izaten, baina bada nora begiratu, Ondarroako Boga Boga elkarteko andreengana esaterako. 30 urte daramatzate formakuntza, aisia eta protesta kolektiboki bizitzen, eta dokumental batean jasotako berri dute: «Zahartzaro feministarantz, Boga Boga».



horrek ere balio handia du», aitortzen du miresmenez.

Lizarzaburuk orriotan lehenago kontatu zuen nola eza-gutu zuen taldea, baina mahaiaren bueltan entzutea, eta andreei zuzenean hitz egiteak berriro emozionatzen du. Feminismo materialistaren inguruan hitzaldi bat emateko deitu zioten, eta, funtzionatu ote zezakeen zalantzarekin, baietz esan zuen: «Konturatu nintzen zeintzuk ziren nire aurreiritziak adineko emakumeekiko; azaldutakoa ez ulertzeko beldur nintzen. Eta flipatu egin nuen dena ulertu

zenutenean; are, egiten ari ginen teorizazioei zentzu asko topatzen genizkien. Bertan postulatzeko dena da emakumeek bizirik irauteko lana doan egin behar dutela zaintza eta afektu forman. Eta horregatik gizonen baino askoz eskubide gutxiago dituztela, ez delako ordaintzen, ez duela-ko ordutegi mugarik... Eta zuek hori dena partekatzen egotea eta esatea: ‘bai bai, halaxe izan da bizi guztian’».

30 URTEKO BIDEA

1995ean sortu zen Boga Boga Elkartearen hazia; formakuntzarekin abiatu ziren, baina 30 urtean hamaika ekintza eta ideia loratu dituzte. Hasieran joskintzari eta sukaldeari lotutako tailerrak egiten zituzten, hor oraindik “Promoción de la Mujer” izena zuen elkartek, eta Boga Boga bihurtzearekin bat igaro ziren Federiciren ideien inguruan eztabaidatzen. Kale izendegia aldatzeko proposamena ere ondu zuten, Bilboko zein inguruko herrietako festetara joaten dira, oportetan Sahararaino ere iritsi dira. Beraien buruari begiratzeko eta harremanak, kasu honetan laguntasun harremanak, baloratzen ikasi dutela kontatzen dute.

Bi gazteenen elkarriketa informal batean baino gehiagotan atera izan da Boga Bogako andreekin eta andreentzat zer-bait egitea. Azkenean, aitortza egin nahiaren txinpartak kamerak hartzera bultzatu zituen, eta ikus-entzunezko pieza bat sortu dute.

«Elkartea sortu zenutenetik 30 urte igarota ziren jada, eta ikusten genuen herri mailan zelako balioa duen egiten du-zuenak, kolektiboki eta komunitarioki ere bai, eta hori ez zegoela inon jasota», hitz egiten

Lizarzaburu: «Konturatu nintzen zeintzuk ziren nire aurreiritziak adineko emakumeekiko; azaldutakoa ez ulertzeko beldur nintzen. Eta flipatu egin nuen dena ulertu zenutenean»

Barinagarrementeria: «Harrituta geratu nintzen adin horretako andreak ikustean Federiciren inguruko eztabaidetan, denera animatzen... Maitemindu egin nintzen»

die emakumeei zuzenean Barinagarrementeriak. «Herrian aitortza publiko bat izateko ere bada», erantzun dio Lizarzaburuk. Izan ere, bere ustez «Boga Bogaren folklorizazioa» eman da askotan: «Eragile feministen inguruan galdetuta, ‘Boga Bogako andra majik’ esaten dute askok, eta bai, oso jatorrak dira, baina politikoki ere jende esanguratsua da, eta horren aitortza egin nahi dugu».

Ea dokumentalean parte hartuko luketen galdetuta, «bai, zergatik ez?» izan zen taldekideen erantzuna, baina ondorenera beldurrak sartu zitzaizkiela aitortzen dute: «Dena gaudituta genuela uste genuen eta pantailaren aurrean ikusteak ezetz erakutsi zigun. Guk hemen lasai egiten dugu berba, baina hor ikusi genuenean, a zer erridikulu!». Baina sentimendu horietatik ere zer ikasia atera dutela kontatzen dute.

IKASTEKO GOGOTSU

Zazpi hamarkadetako ikaspe-nak daramatzate azalean, eta hala ere ikasteko grina bizi baino biziago dute. Gainera, elkarrekin sortu duten espazio seguruan aske sentitzen dira, eta halaxe aitortzen dute, «hemen esaten diren gauza denak ezin dira kalean esan, baina hemen badugu askatasun hori, errespetuz aritzen gara».

«Orain gaztetan baino libreago sentitzen naiz», aitortzen du Iriondok dokumentalean, eta azaltzen dute nola berreskuratu duten askatasuna. Lehendabizi aitak esandakoari men egin behar zioten, gero senarrak esandakoari, «eta orain, nik nahi dudana!» botatzen dute irri artean.

Ezetz esaten ikasi dutela kontatu dute eta «lotsa» ere askatu dutela: «Txarto egindako gauzeekin lotsatzen gara, baina ongi egindakoekin ez. Inori ez badiogu kalterik egiten ez dugu lotsarik, lotsa hori galdu dugu eta galdu egin behar da!». Jakin-minak dir-dir egiten die begietan, bizitza osoan euskaraz hitz egin badute ere, orain ikasten ari direla kontatzen dute, eta ondolik zehaztu dute AEK-n ikaslerro propioa sortu zutela Boga Bogako emakumeentzat. «Gogoratzen zara sexologoa ekarriko zenuela esan zenutenean?», luzatu dio galdera Iriondok Barinagarrementeriarri, eta irri txikiarekin jarraitu du: «‘Gu amamak gara eta ze sexu...’ esaten genuen, baina oso pozik geratu ginen, isilik genituen dudak eta lotsak atera genituen eta esan: ‘gu inozenteak izateko ez gara jaio, e!’ Gure buruak kaiolan sartzen ari ginen, indarra genuen kaiolatik ateratzeko baina ez genekien nola; Udanek saguen tranpa ireki zuen eta gauza asko eta asko atera ziren, kuriositate handia dugu». Agian, azken urteetatik atera duten ikasgaiarik eraginkorrena protesta egiten ikastea izan dela onartzen dute. «Formazio asko, baina protestatzen ere erakutsi digute», diote erdi harrotuta: «Lotsa galdu eta behar den lekuetara joaten erakutsi digute, udaletxera, aldundira... lehen ez genuen

egingo, baina beldurra eta nagikeria kendu digute».

Ausartu gara ea protesta egiten dutenean zer erantzun jasotzen duten galdetzera. «Batzuetan esaten dute: ‘ama-ma hauek, zer eskatzera datoz?’ Baina beste batzuek oso ondo entzuten gaituzte, hori bai, entzun bakarrik. Orain ikasi behar duguna da behar den moduan idazten lekuetara, foro sozial horietan sartu behar dugu, horren ikastaroa behar dugu...». Beti ikasteko gogoz.

PROTESTAK ETA ALDARRIAK

Anekdoten artean aldarri eta salaketak ia nahigabeen mahai gaineratzen dira. Garraio publikoarena da horietako bat: «Guk garraio publikoari garrantzi handia ematen diogu; auto batean ez gara guztiok sartzen, eta ez dugu inor etxean utzi nahi. Gaualdeko hamabietan autobusa balego joango ginen operara, edo Donostiako Musika Hamabostaldira. Gainera, lehen pentsio gehiago zeuden lotan geratzeko ere, lo ‘ekonomiko-ki’ egiteko, baina orain pentsio horiek luxuzko hotel bihurtu dira; 50 euro barik ezin duzu lo egin Bilbon, edo hogeitazterekin partekatu behar duzu gela, eta gu ez gaude horretarako». Ekonomiari ere begiratu behar diotela azaltzen dute, izan ere, nahiago dute hamar lekutara joan bitara bakarrik joan baino, baina guztiak du kostu bat.

«Guk garraio publikoa behar dugu, Bizkaiko beste puntan bizi gara eta Bizkaibus bakarra daukagu. Ordu erdian behin pasatzen delako esker-rrak eman behar ditugu, ez dago gaizki, baina hobetu egin behar da. Egon daitezela

«Hemen esaten diren gauza denak ezin dira kalean esan, baina hemen badugu askatasun hori pentsatzen duguna esateko, errespetuz aritzen gara, baina hemen geratzen da»

«Txarto egindako gauzekin lotsatzen gara, baina ongi egindakoekin ez. Inori ez badiogu kalterik egiten ez dugu lotsarik, lotsa hori galdu dugu eta galdu egin behar da!»

autobusak maizago eta gehiago», egin dute aldarri.

Protestarako edota laguntza eskatzeko gaur egun «makinekin» borrokatu beharra dagoelako ere kexatzen dira. Argi diote ikasteko prest daudela, baina nabarmendu dute instituzioen partetik formakuntzarik ez dutela jasotzen eta geroz eta lan zailagoa dela ingurune digitalarekin borrokatzea. Halaxe kontatzen du dinamizatzaileak: «Gogoratzen naiz ni hasi nintzenean udaletxeko dirulaguntza ez zela iristen, eta kezkatuta zeundeten. Gainera, zuek elkarre moduan dirulaguntzak eskatzeko duzuen alfabetatze digitala duzuen da; gure belaunaldiko jendearentzat oso zaila baldin bada, zer esan zuen adinean... Posta elektronikoa behar da, sinadura elektronikoa behar da. Arrakala handia dago laguntzak eskatzeko duzuen sarbidean; jada ez da laguntzak badauden edo ez, baizik eta nork eska ditzakeen, nork ulertzen duen nola egin behar den. Urte dexente daramazue horrekin borrokan». Baiezkoa egin dute andreek buruarekin eta segidan bota: «Ahalduntzea sartu diguzue buruan eta orain atzera ez dugu egin nahi».

Kultura da Boga Bogaren beste zutabeetako bat: zinea,

Iriondo goiko argazkian, eta, behekoan, Arrasate, beren ibilerak kontatzen.
Gorka RUBIO | FOKU



antzerkia, musika, literatura, kantua... Guztiak ukitzen dituzte, eta elkarrekin guztiz lotuta» ulertzen dutela aitortzen dute: «Lehen agian etxean geratuko ginen irakurtzen edo telebista ikusten, baina hortxe duzu kultura, eta batzen garenoi ere gus-tatzen zaigu, aukera bat da eta gogoia ematen dizu». Badute kulturari lotutako urteroko zita bat: Aulestin egiten diren antzerki topaketak. Ba-koitzak bere aulkia eta guzti

eramaten du eta aste osoa pasatzen dute bertan, «ia bertakoak baino gehiago egoten gara!».

Barrinagarrementerik egungo garaira egokitzeko kultur hartze handia egin dutela azaltzen du, bizipenak denboran zehar antzekoak izan arren, kontzeptualizazioa asko aldatu baita, eta hori ere ikasi nahi andre ondarrorrek: «Zaintza greba lantzen hasi ginenean, esaten zenuten: ‘interdependentsia eta domeke-



«Guk garraio publikoari garrantzi handia ematen diogu; leku askotara joan nahi dugu, auto batean ez gara guztiok sartzen, eta ez dugu inor etxean utzi nahi»

Dokumentalaren zuzendariak: «Guretzat eredu bat izan da, eta gazteoi ere balio izan digu perspektiba aldatzeko subjektu feministarekiko, eta subjektua zabaltzeko»

Goiko argazkian Boga Bogako Gallastegi. Behean, dokumentalaren zuzendariak, Lizarزابuru eta Barinagarrementeria. Gorka RUBIO | FOKU



tako berba horiek guk ez dakizkigu'. Eta ariketa bat egin genuen hori lantzeko, eta amaieran esaten zenidaten: 'badakigu zer den hau, ez genekiena zen izen hori zuenik'. Eta landu genuen zuen inguruko jendeari hori nola kontatu; batzuetan hizkuntza bada salto bat, baina beti dakizue zertaz ari garen. Gainera, ahalgina egiten duzue erabiltzeko eta integratzeko zuena ez den terminologia, eta hor kultura hartze lan handia dago;

70 urterekin kultura hartze horretan jarraitu nahi izatea izugarria da».

ETORKIZUNEN KIDEAK

Gazteenek argi dute zahartzean Boga Boga elkartearekin egon nahi dutela, baina helduek gazteenen etorkizuna ilun xamar ikusten dute: «Gure lobek ez dute guk edukitako zortetik izango. Guk gazte-gaztetatik zortea izan genuen, urte askoan ongi ordainduta-ko eta kotizatutako lanak izan

dira, gure gazteek ez dute zorte hori, karrera handiak, ongi prestatutako umeak eta 800 euro kobratzen. Ez dute gure jubilaziorik izango».

Beraien bizitza errazagoa izan dela esaten digute gazteenoi begira, parekoek ezetz esaten dieten arren. Horrela mintzatzen zaie Lizarزابuru: «Gu garai neoliberaletan gaudela, gauzak itsusi ari dira jartzen, baina aurrerapen feministak asko egin ditugu, eta egin dituzue. Zuek egin dituzuen aurrerapen asko disfrutatutako guk, eta alde horretatik oso ezberdina da». Hala ere, bat agertu dira boterea nork duen eztabaidatzean, Boga Bogakoek egin dute ohartarazpena: «Lehen lanean gizonek agintzen zuten, agintzeko moduak eskasak ziren, errespetua lbarrangelun zegoen, aparte-apartean, eta hori ez da aldatu. Gaur berdina da, zibilizatuago agian, ez dira hain zakarrak, baina lehen beste agintzen dute».

Ametz bat dute gazteenek, beraiek 70 urte dituztenean Etxelilara joatea eta Boga Bogan parte hartzea: «Guretzat eredu bat izan da, eta gazteoi ere balio izan digu perspektiba aldatzeko subjektu feministarekiko, eta subjektua zabaltzeko. Niri ilusioa egingo lidake egitura hau heredatzeak». Etorkizuna irudikatze-ko beste aukera bat eman diela

elkarte hau ezagutzeak aitor-tzen du Barrinagarrementeria-riak, «zahartzaroa feminis-motik irudikatze-ko aukera ematen digu, aukera materiala gainera. Gaur egun dagoena erreala da».

ELKARREKIN NOR IZAN

Nor izateko espazio aproposa izan daiteke Boga Boga Lizarزابururentzat: «Kontuan hartuta bizitza eta afektuak asko antolatu direla familiaren arabera, guretzako eta feminis-moarentzako pentsatzen dugu oso garrantzitsua dela familia horretatik kanpo laguntasun egiturak eta komunitateak sortzea. Familia, zoritxarrez, emakumeen esplotaziorako eremua da; maitasun asko jasotzen duzu, gauza asko eduki ditzakezu bertan, baina familian lan asko doan egin behar duzu, aitortza oso gutxiatik. Eta Boga Boga da leku bat ez zarena ama, alaba edo ahizpa, hemen zeu zara, eta horretarako andreak familiatik kanpo egon behar dira».

Ondarroako andreek maitasunez hitz egiten dute familiaz, baina maitasun eta miresmenez lagunez, sortu duten komunitateaz, norbanakoan zein kolektiboan egin dituzten aurrera urratsekin harro daude, zahartzaro feministak bat posible dela erakutsi diete beren buruei eta herri guztiari.

Havemus vinus omen da beraien erritua. Dokumentalean horrela azaltzen dute, kantuan eta toka eginez ospatzen dituzte desikasitakoak eta ikasitakoak, eta urte luzez toka egiten jarraitu nahi dute, beraientzat eta jarraian datozenentzat. Ateak zabalik dituzte inguruko andre guztientzat.

Korapiloak askatzen

**Maidor IANTZI
GOIENETXE**

Korapilo bat askatzen hasten garenean luzeago har dezakegu arnasa. Poz bete bat sentitzen dugu, harrotasun puntu bat. Korapiloa bizi guzikoa bada, ume-umetakoa, pentsa zenbaterainokoa izan daitekeen askatze hau. Azkenaldian (edo beti) sentsazioa dut kontu pertsonalak bertzerik ez ditudala kontatzen zutabea, baina ezin dut idatzi ateratzen ez zaidanik. Hortaz, eskolatzeaz arituko naiz, behatzak teklatuan oraindik pixka bat dardarka ditudala, irribarre bare bat ezpainenetan.

Bigarren erditze bat bezala izan da niretzat prozesua, neukan korapilo horregatik, eta askatzen joatean semea ere askatu dudala garbi ikusi dut. Ulermenak

eraman nau korapiloa askatzen hastera. Gertaerak gaur egundik aztertu ditut, ñabartuz, absolutismoetatik aldenduz. Errurik banatu gabe, garaiak, ingurua eta hura osatzen zuten pertsonak onartu eta barkatu ditut. Eta gaizki-ulertuez ohartu naiz. Guztia izarren gisan agertu zaizkidan (edo bilatu ditudan) bidelagun ederren ondoan, poliki-poliki, berriek eman dizkidaten ikuspegi berriak deskubrituz, aditzeko hain politak ez diren gauzak jasotzeko prest egonez, jarriera irekiarekin eta konfiantzarekin.

Badakit momentu guziak ez direla samurak izanen, baina ikastola kartzela bezala bizitzetik etxea bezala bizitzeko bidea hasi dut benetan. Eta prozesua luzea izan den arren, hilabete guttitan pa-

sa naiz kartzela sentitzen nuena etxe sentitzen hastera. Niri ere harrigarria iruditzen zait, magikoa ia.

Motxila astun bat eraman dut, baina konturatu naiz ez dudala zertan. Bazter batean utz dezaket, arinago ibili. Nire zauria miazkatzeari utzi diodanean semea ikusi dut, kontent, lagunekin jolasean, beraien maitasuna eta laguntza jasotzen ikastolako lehen egunean. Ez dut nire burua ikusi beregan, orain arte egiten nuen bezala, baizik eta Unax, bere nortasunarekin, bere gogo eta beharrekin, bere ikasteko grinarekin. Opari bat da egun handi honetan, zure munduratzeko honetan, zure bidelagun izatea, Unax. Nire zauria ez, orain zu zara protagonista. Aunitz gozatu! •

Pasioa

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Pasioz hilko nintzateke, pasioz bizi, jakinik gure eskuetan baino ez dagoela lortzea, horretarako ez dela miraririk behar, ez dela mundua deskubritu behar, nahikoa dela intentsitatez bizitzea, nahikoa dela egunerokoan ematen eta jasotzen duguna sentitzea, barrutik eta energiarekin. Irudimenak ere izugarri laguntzen du gatz-piper apur batez ondua, druida-lapiko sakon batean sartu eta zurezko koilara erraldoiarekin erregosi arte astiro bainagogo bira eta bira eragin usainek, xiringatik lez, zainak eta burmuina tango-dantzaren pasiotan blaitu arite...

Pasioa da garenetik erabakiak hartzea, gauzak benetan nahi dugulako egitea eta ez plastikozkoak bagina bezala norbaitek ezarri printzipioak itsu-itsuan jarraitzeagatik.

Pasioa da emozioa, energia, beroa, garrara, sua, suharra, sumendia, bizia, grina, nahia, sentitzea, ukitzea, maitasuna, desioa, sexua, lizunkeria, luxuria, haragi-keria.

Pasioa da poesia, burua eta gorputza astintzea, arrankea, ausardia, kementa, adorea, kuraia.

Apasionatua da minak, nekaldiak, higadurak, pairamenak, sufrimenduak, sumindurak kanporatzen dituen barruan lehertu beharrean.



Apasionatua da haserretzen dena, zerbait gaizki egin izanaren kulpabere egin aurretik (haserretu ordezarritan egiten duguna, bereziki emakumeek).

Niretzako pertsonak apasionatua behar du izan, onerako zein txarrerako, goxoa bezain zorrotza, kezken zurrunbiloan ito ordezkurariarekin jarriera egiten duena, ameslaria eta utopikoa, eta aitortzen dut apasionatua ez den bikotekiderik ez nukeela izanen, politena izanagatik ere.

Maitasuna eta sufrimendua bateradoaz, halabeharrez, tango-dantzaren bikote banaezinak balira bezala.

Ez dadila eten dantza. •

LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Deserosotasunaren lurralde labainkorrean

Aurten milaka telesail estreinatu dira, eta, zoritxarrez, bata bestea-rengandik gerroz eta berdina goak. Askok algoritmoen eskutik jaiotako izenburuak dirudite, produktu prefabrikatuak balira bezala. Itsaso zabal horretan zerbait sakona eta koherentea egin nahi duten sortzaileentzat ez da erraza izaten nabarmendu eta bereiztea: batzuetan istorioak harrapatzen du ikuslea, beste batzuetan estetikak liluratzten du, eta zenbaitetan, aktoreen lana bihurtzen da argia iluntasunean.

NARRATIBA APURTZAILEEN MUNDUA

2025ean, estiloari eta tonuari dagokionez, guztien gainetik nabarmendu diren bi izenburu jaio dira: “The Chair Company” eta “The Rehearsal”. Proposamen bitxiak eta desberdinak dira, eta akaso ez dira ikusle guztientzat gustukoak izango. Baina zin dagizuet: aurten eta, ziurrenik, denbora luzez, ez duzuela proposamen hauen antzekorik ikusiko.

Nahiz eta “The Rehearsal” eta “The Chair Company” oso telesail desberdinak irudit, biek dute alor liluragarri bat: deserosoak dira, ustekabeak, eta sorkuntzari buruzko hausnarketa biziki interesgarria plazaratzen dute. “The Rehearsal”-en, Nathan Fielderre mundu hiperrealistak eraikitzen ditu bizitza errealeko erabakiak entseatzeko; kontrolaren eta zaurgarritasunaren, errealitatearen eta si-

ldatzi bi izenburu hauek: «The Chair Company» eta «The Rehearsal». Tira, gogora itzazu bereziki proposamen desberdinak, apurtzaileak eta, batez ere, deserosotasuna sortzen dutenak maite badituzu. Jarraian, bi telesail deskribaezin horiek aztertu eta zergatik diren hain bereziak azalduko dut. Deserosotasunaren lurralde labainkorrean murgiltzeko prest?

mulazioaren arteko tentsioa arakatz. Bestalde, “The Chair Company”-k desafio egiten dio ikusleari, espektatibak iraultzen dituzten pertsonaien eta egoeren bidez.

Bi telesailek formatu tradizionalarekin apurtzeko anbizioa partekatzen dute: narratibarekin eta formarekin esperimen-

tatzen dute, ikusleak ikusten duena eta hautematen duena zalantzan jartzera behartuz.

«THE REHEARSAL»:

ERREALITATEAREKIN ETA

FIKZIOAREKIN JOLASEAN

Irudikatu honako egoera: familiako kide edo lagun bati albiste txar edo desatsegina bat ema-

teko zorian zaude, baina ez duzu zeure burua prest ikusten. Urduri zaude, eta zalantzati; el-karrizketa horren ondorioak ezin iragarritzkoak dira, eta ez dakizu nola erreakzionatuko duen. “The Rehearsal” telesailak (euskaraz, “entseguak” esan nahi du) erabat lausotzen ditu errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak, eta mota horretako egoerei aurre egin behar dieten benetako pertsonak ditut protagonista.

Nathan Fielder komediante, gidoilari, ekoizle eta zuzendari kanadarra ezaguna da bere umore berezi eta deserosoagatik; “The Rehearsal” ekoizpenarekin beste maila batera eramane du bere obra. Fielderre elkarrizketak edo bizitza



errealeko egoera zailak entseatzen laguntzen dio jende arruntari. Horretarako, agertokiak xehetasunez birsortu, eta elkarriazketan horietan sor daitezkeen egoera posible guztiak entseatuko ditu. Aurretik idatzitako gidoi baten bidez, egoera bakoitzerako askotariko irtenbideak planteatuko dizkie gonbidatuei, eguneroko bizitzan zama handikoak bihur daitezkeen egoerei aurre egiteko. *Docureality*-aren kontzeptua beste maila batera eramaten du telesail bitxi honek.

Telesailaren alderdirik liluragarriena ez da gertatzen den hori, baizik eta gertatzen den horrek nola behartzen duen ikuslea saiakeraren beraren helburua ezbaian jartzera. Zenbateraino kontrolatu daitezke erabaki edota ekintza jakin batzuen ondorioak? Zertarako balio du aldagai bakoitza planifikatzeak gizatasuna, berez, auresanezina bada?

Bisualki, telesaila hotza da, eta, hizkuntza zinematografiakoaren ikuspuntutik, ezin sinpleagoa, baina beste forma bat erabiltzea zentzugabea izango zatekeen. Tonua oso bitxia da, planteatzen diren egoerak maiz serioak diren arren umore oso deserosoa baitu helduleku nagusia.

Telebistako produktu arrunt baten itxura du, baina dirudien baino askoz sakonagoa da obra berdingabe hau, deseroso sentiarazteko beldurrik ez duen esperimentu bat; *reality*-aren, dramaren eta komediaren egiturekin jolastu, eta zerbait guztiz berritzailea eraiki du Fielderrek.

Ez da ikusle guztientzako moduko edukia, baina telesail-leko jokoan sartzen diren ikusleak ohartuko dira pantaila txikiko gaur egungo eskaintza zabaleko esperientzia proba-



katzaile eta ahaztezinenetako bat dela. Liluragarria bezain zentzugabea da.

Aurten estreinatu den bigarren denboraldiak Fielderrek lehen zatian ezarri zuen kontzeptuari jarraitzen dio: errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak arakatzea. Baina oraingoan ez du bakarrik parte-hartzaileen psikologian sakontzen; Fielderrek berak narrazioan duen eraginari ere arreta jartzen zaio, eta, batzuetan, bere eremu pertsonalera jauzi egiten du.

«THE CHAIR COMPANY»: ISTORIA EGOERA HUTSAL BATETIK JAIOTZEN DENEKOA

Laneko gertakari deseroso baten ondoren, William Ronald Trooper irismen handiko konspirazio bat ikertzen hasi da. Thriller eta suspense kutsua duen premisa hori irakurri ondoren, telesail serio eta

bizi bat ikusiko duzula pentsa dezakezu, ezta? Egia da elementu horiek badituela, baina muinean, istorioa absurdoa eta zentzugabea da; bertatik jaiotzen da seriearen umore bereizgarria, deskribaezina, bizarroa eta batez ere absurdoa.

Aurkezpen jendetsu batean, eszenatokian dagoen eserlekuan esertzerako doanean, krak!, aulkia hautsi eta protagonista lurrera erortzen da, ehunka pertsona begira dituela. Gertaera horrek sortzen dion lotsa, ezinegona, inpotentzia, frustrazioa hain da handia, ezen aulki hori fabrikatu duen enpresa ikertzea erabakiko duen, atzean konspirazio bat dagoela sinetsita. Guztia, absurdukeria etengabetik irten gabe, iluntzen eta korapilatzen joango da.

Tim Robinson, “The Chair Company” telesailaren aktore protagonista, gidoilaria eta

sortzailea nor den azaltzea garrantzitsua da: komediagile, aktore eta gidoilari estatubatuarra da, eta gero eta presentzia handiagoa du komedia garaikidean. Deserosotasunaren, absurdoaren eta molde konbentzionaletik ateratzen den komedia maite bazu, gorde ongi bere izena. Aldiz, umore mota hori gustuko ez dutenek, gorrotatu egingo dute.

“The Chair Company”-k komedia deserosoaren eta thriller konspiratiboaren egitura uztartzen ditu, eta horrek sentazio hibrido interesgarria sortzen du: barrea eragiten du, baina, aldi berean, oso bitxia eta kezkarria da.

Deserosoa izateko beldurrik ez duen komedia berritzailea eta berezia da, desorientazioarekin jolasten duena eta hutsala dena balizko paranoia bihurtzen duena.



Irati DE TORRES BILBAO
Psikologian graduatua



GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.eus

Pribilegiotik biktimizaziora: narratiba antifeministak Manosferan

Konektatuta bizi gara. Pantailak gure egunerokotasunaren zati bihurtu dira. Mugikorretik ordenagailura, tabletetatik eta erloju adimentsuetatik igaroz, gailu teknologikoen etengabeko erabilerak gure harreman, ohitura eta identitateen zati handi bat definitzen du. Baina benetan ulertzen ari al gara zer dakarren mundu digitalarekiko etengabeko esposizio horrek?

Teknologia berrien erabilerari buruz kritikoki hausnartzea ez da mugatzen pantaila baten aurrean pasatutako denborara, beharrezkoa baita ulertzea zein mezu mota kontsumitzen den, nork sortzen duen, zein asmekin eta zer inpaktu sortzen duen. Izan ere, teknologia berrien eta sare sozialen ondorioz, informazio-bonbardaketa betean gaude murgilduta. Mezu biralak, jarrera erradikalak eta diskurtso polarizatuak nahasten dira, eta, kaltegabeak diruditen arren, karga ideologiko esanguratsuak ezkututzen dituzte.

Sare sozialetan hedatzen diren eduki askok genero-estereotipoak indartu eta diskurtso diskriminatzaileak normalizatzen dituzte. Horren adibide dugu Manosfera delakoa, ideia matxista eta antifeministak sustatzen dituen online komunitatea. Maskulinitatea ardatz duen komunitate digitalen sarea ugaritu egin da sare soziale-tan, hala nola Youtube, TikTok edota X plataformetan. Gizonentzako “laguntza-gune” gisa definitzen dute. Hala ere, garapen pertsonalaren edo kritika sozialaren itxura horren azpian, diskurtso erabat misogino eta antifeministak ezkututzen dira; neurri handi batean, feminismoaren aurrean sentitzen duten mehatxuak eta pribilegioak galtzeko beldur-rak bultzaturik. Pribilegio historikoki maskulino horiek galtzeko beldurra amorru bihurtzen da, eta amorru horrek oihartzuna aurkitzen du espazio horietan.

Ingurune horien arriskua ez datza haien edukian bakarrik, horrelako edukiek eragin negatiboa izan dezake-

telako pertsonen eta, batez ere, gazteen nortasunaren eraikuntzan eta autoestimuan ere. Eragina dute norbanakoaren irudia munduari erakusteko moduan, besteen adostasuna eta onarpena bilatzea bultzatzen baitute etengabe. Probokazioa saritzen duten algoritmoen bidez, diskurtso horiek biral bihur daitezke azkar, eta, hala, jarrera sexistak normalizatu, emakumeenganako mespretxua sustatu eta genero-ekitate mota oro mehatxu gisa bazter dezakete. Epe luzera, horrek, desberdintasuna betikotzeaz gain, oztopatu egiten du maskulinitate osasungarri, enpatiko eta plurala eraikitzea.

Horrek funtsezko eztabaida batera bideratzen gaitu, alegia, teknologia berriek gure harremanetan, pribatutasunean eta ongizate emozionalean duten eraginari buruzkora, eta horien erabilerari arduratsu eta etikoari buruzko hausnarketa sakona eskatzen du. Izan ere, gaur egun pantailekiko etengabeko esposizioa eguneroko bizitzaren zati bihurtu da eta beharrezkoa da hezkuntzan dagokion bezala eustea.

Ildo horretatik, gaur egungo erronka handienetako bat da hezkuntzan teknologia berrien erabilerari sakontasunez eta sistematikoki heltzea. Nabarmena da nerabe eta gazteen eguneroko bizitzan gero eta presentzia handiagoa du-

tela teknologia berriek eta horien eragina –identitatearen eraikuntzan, harremanetan eta munduarekiko ikuspegiari– oraindik ez da behar bezala lantzen ikasgeletan. Hori bereziki kaltegarria izan daiteke espazio digital asko diskurtso toxiko eta baztertzailez josita daudelako, Manosferan ugari diren horien modukoez. Horregatik, premia da hezkuntza-praktikan teknologien erabilerari buruzko begirada kritiko eta eguneratua txertatu eta garatzea, ikasleek ingurune digitalean kontsumitzen eta partekatzen dituzten mezuak ulertu eta zalantzan jar ditzaten eta horien aurrean posizionatzeko aukera izan dezaten. •



Beharrezkoa da ulertzea zein mezu mota kontsumitzen den. GETTY

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Hustu

Betidanik gustatu izan zait idaztea. Aisialditik, eraikitzetik eta nolabait hustetik, hiruetatik, dauka. Gustura egiten dut eta on egiten dit. Irakurtzeaz ere pila bat gozatzen dut, eta esango nuke badaukatela lotura. Biek baretu egiten naute eta, aberasteaz gain, ondo sentiarazi.

Gainera, idazteak badauka beti –gehiago edo gutxiago– norbera ispiluaren aurrean jartzetik eta beste batzuen aurrean hori erakustetik. Hitzak lotzerakoan izan zaitezke exhibizionista edo sotila, baina beti bistarazten duzu zure atalen bat.

Errazten dit zabaltzen pozten nauten eta gorazarre egin nahi dizkiedan gure herri txiki baina ekimentsu honen lorpen askotarikoak. Baliatzen dut ere gustuko ditudan kantu, talde, liburu edo bestelako lanak nabarmendu eta horien existentzia partekatzeko eta interesa piztuerazteko.

Paper edo ordenagailu aurrean jartzerakoan askotan gehien kezkatzen nauten kontuak ateratzen dira eta horiek askotarikoak dira. Asko, tamalez, gizarteko bidegabekeriak eta horren aurrean gizartean ditugun jarrera epel edo ezkorrak. Dela Palestinaren aurkako jazarpen eta odoluste bidegabea; Ukrainaren aldeko eta Errusiaren kontrako agerpen zuri-beltzekoa eta hutsala; ditxosozko pandemian bizi izandako muturreko egoera, esperimendu eta jarrera beldurgarriak... Lerrokatzeari bizkarra emanda, kritikotasunean oinarrituta, tarteko tonalitate paleta zabal horretan marraztu eta koloreztatze bidea ematen didate hitzek.

Agertzen dira ere norberaren fobiak, jasan ezin ditudanak: esaterako apolitikoak direla diotenak (ze gezurrezko kaka zahar da hori?), “El Diario Vasco” eguneroko irakurri bizi den jendilaje zabal baina estu hori bera; Amazonen konpultsiboki erostea eta polizia izatea ondo iruditzen zaion jendea, zeintzuek ereiten duten haien eta ondorengo etorkizunerako egurra eta gosea; gure mixerien errudunak bilatzean, botere-

tsuei ez erreparatzeko, arrazista artalde arriskutsu bilakatutakoak; oraindik ere Eliza katolikoaren omnipresentziari kritika egiteari uko egiten diotenak; Atez Ateko zabor bilketaren “infernua” bizi izan genuenean, penitentziatik “salbatu” gintuzten horiek, betiko egongo baikara “zorretan” haiekin.

Bestalde, bizitza esperientzia pilatzen joan izan naizen heinean, gogoan ditut indartsuago topera eta kontzientzia osoz bizi izandako garaiak eta ia ezinbestean gaur egungo garaiekin ezinbesteko konparaketa tarteka nostalgikoak egin izan ditut. Guraso izateak ere orbain sakona utzi du nigan; asko da semeekin ikasten dudana eta, nahiz eta jakin ezinbestean haiei gurasooi kontra egitea tokatzen zaiela, kezkatzen naute haien orainak eta etorkizunak; hala nola, sare sozialek eta kontsumitzen dituzten *reel* horiek semeen kritikotasunean (edo horren ezan) izango duten eragina.

Eta, badira ere, jakina, gai unibertsal bezain pertsonalak direnak, erabat garrantzitsuak: harremanen, la-

Paper edo ordenagailu aurrean jartzerakoan askotan gehien kezkatzen nauten kontuak ateratzen dira eta horiek askotarikoak dira. Asko, tamalez, gizarteko bidegabekeriak eta horren aurrean ditugun jarrera epel edo ezkorrak

guntasunaren, bizitzako aukeraketen, adinaren, kamiseten neurrien zein familia eta oinordekoen bizipenen gaineko hausnarketak eta gogora ekartzeak.

Horiek eta beste asko haizatu ditut lehenengo nire barrenean eta ondoren lerrootara ekarri. Urte ugari pasa ditut GAUR8 honetan hilabetero nire purrustada, gomendio, kezka edo txantxak iraultzen. Eskerrak horretarako bidea eman didan argitalpen honi, editoreari, zuei irakurleoi eta horien artean fin-fin aldiro hauek ikuskatu eta tarteka azalgorritu zareten Zubietarroi. •

«Oraindik ikasten ari naiz, amonari baratzean laguntzen zion ume mukitsu hori naiz»



eguerdirako etorri bueltan, bazkaria jarri, siesta egin, sies-tatik jaiki, eta arratsaldea zen baratze lanak egiteko mo-mentua. Eta hurrengo egu-nean salduko zituen barazkiak prestatzekoa. Niri harrigarria egiten zitzaidan eta umemoko bat nintzela hor ibiltzen nin-tzen berari laguntzen: hau ekarri, beste hori ureztatu... Han asko ikasi nuen. Esaerak, zer urte garaitan zer lan egin behar ziren... Eta nik dena koa-derno txiki batean apuntatzen nuen; 9-10 urte izango nituen.

Gero, beste bi izeba, aitaren arrebak, gure etxe azpian bizi ziren, eta haiek oilategia zu-ten, baratzea etxe ondoan... Izeba horiek oso lorezaleak zi-ren. Amona ere bai, baina hark gehiago zituen sendabelarrak eta berak erabiltzen zituenak. Baina izebek gehiago loreak hartu, aldaxkak egin...

Hasieran pentsatu nuen jubi-latu egin nahi nin-dutela»,

dio txantxetan sariaren berri eman ziotenean zer sentitu zuen galdetuta. Baina serio ja-rrita onartu du garrantzi han-dia ematen diola errekonozimenduari. «Emozionantea da jendeak aitortza hori egitea. Uste dut urte askotako lan be-rezi baten ondoren etorri dela hau eta egia esanda oso gustu-ra nago. Aurrera begira jarrai-tzeko gogoarekin».

Nondik dator baratzearekiko zaletasuna? Haur garaiko maitemina da edo geroago sortu zen?

Oso umetatik dator, nire eko-sistema hori izan delako beñi.

JAKOBA ERREKONDO SALTSAMENDI

AGRONOMOA ETA DIBULGATZAILEA

Rikardo Arregi sarien ohorezko mugarria jasoko du Jakoba Errekondok (Usurbil, 1961). 40 urtetik gora daramatza komunikabide desberdinetan landareen inguruko azalpenak ematen, baina berak ere bidean asko ikasi duela dio.

Asier AIESTARAN

Aita zerraria zen, zerrategia zeukan. Arbolak ekartzen zi-tuzten eta ni txundituta gera-tzen nintzen ikusiz nola arbo-la horietatik ateratako piezak erabiltzen ziren gero etxeak egiteko eta abar. Nire ingeniari izaerak badu hortik pixka bat. Aita, era berean, ehiztaria zen, eta ahal zuen guztietan, batez ere igande goizetan, txakurrak hartu eta asko ibiltzen ginen mendian. Gu beti galdezka: «hau ze arbola da?», «eta beste hura?». Hortik asko ikasi dut.

Amona, amaren ama, bizitza guztian baratzezaina izan da eta Donostiara joaten zen behi-esnea eta berak egindako barazkiak saltzera. Baratze erraldoia zeukan, ia-ia berak bakarrik maneiatzen zuena, txundigarria zen. Gaur egun lan pentsaezina. Goizean oso goiz joaten zen Donostiara,

Umetatik koadernoarekin apunteak hartzen...

Esan behar da ni beti izan nai-zela irakurle amorratua, txiki-txikitatik. Baina gure amorra-zioa berehala bukatzen zen, orduan libururik ia ez zegoela-ko. Orduan La Salle zen Usur-bilgo eskola, liburutegi bat ba-zen, baina ez zen edonor iristen liburutegi horretara. Es-kola behean zegoen eta goi-goiko plantan “hermanoak” bizi ziren. Hor zegoen liburu-tegia. Eta gero, oso noizean behin etortzen zen bibliobus bat, autobus bat liburuz betea, eta hori guretzat sekulakoa zen, mundura konexio bat. Ba-genekien autobus horretara sartuz egunerokotasunetik aterako ginela. Beraz, idaztea eta jasotzea asko gustatzen zi-tzaidan. Amonak esaten zuen «ilgora honetan erein behar da


perrexila, ostiral santuan», eta nik horiek denak jasota ditut.

Ikasketak ere bide horretatik bideratu zenituen. Hori ere argi zenuen hasieratik?

Ikasketekin gauza inkontziente bat gertatu zen. Nik 13 urtekin nahiago nuen lanean hasi, egokiagoa iruditzen zitzaidan, baina aitak argi zuen ezetz. «Hik balio duk eta ikasi egin behar duk». Eta orduan zer ikasi pentsatu behar izan nuen, garai hartan ez zegoelako gaur bezain besteko aukera. Agronomo ikastea erabaki nuen eta 18 urte bete eta handik bi egunera Lleidara joateko trena hartu nuen. Han euskaldun batzuk bildu ginen eta bigarren urtea egitera denok Iruñera etorri ginen.

Nik 20 urterako karrera bukatuta neukan. Ingeniari teknikoa naiz, ez nuen jarraitu nahi izan goi-mailako ingeniaritza egiten, zeren iruditzen zitzaidan irakaskuntza desastre bat zela, guk gehiago genekielako irakasleek baino. Soldaduska egitera joan nintzen, eta, amaitutakoan, otsailean amaituko nuen, udaberri horretan lanean hasi nintzen.

Orduan Gureak enpresaren zentrala Hernanin zegoen, Jauregin, frontoiaren atzean, eta deitu zidaten esanez teknikari bat behar zutela bertako langileekin brigadak egiteko, lorezaintza lanak egiteko... Departamentu bat sortzeko. Garai hartan desgaitasuna zuten pertsonak lantokian sartuta edukitzen zituzten, eta nahi zuten kanpoko lanak ere egiten hastea, jendeak ere haien lana ikusteko. Azterketa bat egin zen eta ni bigarren gelditu nintzen. Aurrena gelditu zenari deitu zioten, baina hark ezezkoka eman zuen. Orduan niri deitu zidaten eta horretan



«Amona, amaren ama, bizitza guztian baratzezaina izan da eta Donostiara joaten zen behiesnea eta berak egindako barazkiak saltzera. Baratze erraldoia zeukan, ia ia berak bakarrik maneiatzen zuena, txundigarria zen»



hasi nintzen. Formatzen lehengo: brigadetako arduradunak, langileak, nola lan egin, zer makineria erabili... Gaur egun departamentu horretan ez dakit zenbat langile egongo diren, 130-150 bat agian bai. Parke hau guk egin genuen [Usurbilgo Atxega jauregiaren parean dagoenaz ari da].

Euskadi Irratian 40 urte inguru daramatzazu. Nolatan hasi zen irratiko abentura hori?

Karrera bukatu eta soldaduskara joan aurreko tarte horretan, Josetxo Lizartzarekin hasi nintzen Herri Irratian. Josetxo lagun handia dut, bere emaztea ikasle garaian nire etxean bizi izan zen neska baten ahizpa da. Garai hartan Usurbilen mobida handiak antolatzen ari ginen bertako gazteak, eta giro horretan bota zidan ea zerbait egingo genuen landareei buruz irratian. Egia esate-

ko, ez naiz ongi gogoratzen zer egiten genuen zehazki, baina horrela hasi ginen. Baina gero soldaduskara joan eta hortxe geratu zen.

Euskadi Irratikoa gero etorri zen. Lehenik Zabalegi nekazaritza eskolara deitu zuten ea bertako irakasleren bat animatuko litzatekeen irratian landareei buruz hitz egitera. Zuzendaria fakultate garaitik ezagutzen nuen, eta hark komentatu zien ezagutzen zuela pertsona bat Herri Irratian Josetxo Lizartzarekin aritzen zena. Eta horrelaxe hasi nintzen. Orduan Euskadi Irratia Mirakontxan zegoen, izkina egiten duen Eusko Jaurlaritzaren erai-kinen goialdean. Gero Prim kalean dagoen etxe-azpi batera aldatu zuten. Eta gero Miramon egin zenean, bertara. Baina ni 1985ean hasi nintzen Mirakontxan, ikasturte hone-tan 41. denboraldia hasi dut.

Orduan esan balizute horrenbeste urte egingo zenituela...

Hasten zarenean ez daukazu denboraren kontzeptu hori. Herri Irratian ere hala izan zen. Bi edo hiru urte, ez dakit zehazki zenbat denbora egon ginen. Eta gero da hasieran zer egiten genuen eta orain zer egiten dugun. Ni hasi nintzeneko koadernoak gordeta daukat oraindik. Hasieran garai bakoitzean zer lan egin behar diren esaten nuen, edo landare jakin bati buruz hitz egin. Tarteka, baten batek deitu egiten zuen. Baina gerora ezagutzen nituen gai batzuetan gehiago sakondu behar izan dut. Formatu. Eta hori etengabeko lan bat bihurtu da nire ibilbidean. Kontuan izan behar da orain mundu guztiko landareak ari direla iristen Euskal Herrira, batez ere lorezaintzan, etxe barruko landareetan eta abar. Basogintza

pixka bat ezagutzen nuen, lurre lantzea ere bai, loreak, baratzea... Fruta-arbolak ere bai, gure aita amorratua zelako horretan. Nik egunero 4-5 ordu irakurtzen pasatzen ditut. Jantzita egon behar dut. Larunbatean joango naiz irratira, kasakoak jantziko ditut, eta ez dakit zer galdetuko didaten. Edozein gauza. Gertatu izan zait esatea «ba ez dakit, hurrengoan zerbait esango dizut». Baina, ahal baldin bada, nahiago dut hori ez gertatzea. Horregatik etengabe irakurtzen ari naiz: aldizkariak, artikulak, liburuak...

Bilakaera bat ikusi omen duzu entzuleen artean. Hasieran baserritarrak ziren batez ere, orain baratze komunitarioak-eta asko zabaldu dira.

Lehen galdetzen zizuten «noiz erein behar da perrexila?», eta gaur egun landare baten izen zientifikoa esaten dizute, ez dakit nork ez dakit nondik ekarri diolako eta ez dakielako zer egin horrekin. Horrek ekarri du nik nire zerbitzu hori osatu behar izatea. Buletinak, artikulak... “Argia”-n 31. urtea da aurtengoa.

Pello Zubiria zegoen zuzendari eta etengabe ari zitzaidan beraiekin zerbait idazteko eskatzen. Gauza bat irratian hitz egitea zen, ordurako lotsa galduta neukan, baina idaztea beste zerbait da. Idatzitakoa hor geratzen da betiko. Irratian esandakoa gaur egun ere bai, baina orduan ez. Eta, gainera, nik begiratzen nuen “Argia”-n idazten zuen jendea eta sekulako maila zutela konturatzen nintzen. Baina, halako batean, baiezkota eman nuen eta gaur arte. Hor ere berdina, pentsatuz urte bat edo bi izango zirela, pentsatzen nuelako gaiak agortu egingo zitzaizki-



«Agronomo ikastea erabaki nuen eta 18 urte bete eta handik bi egunera Lleidara joateko trena hartu nuen. Euskaldun batzuk bildu eta bigarren urtea egitera Iruñera etorri ginen»

«Ni hasi nintzenean, 1985ean, Euskadi Irratia Mirakontxan zegoen, Andia kalean. Gero Prim kalean dagoen etxeazpi batera aldatu zuten. Eta gero Miramon egin zenean, bertara»

dala. Ba, atzo entregatu nuen 1.392. artikulua.

Ni idazteko gaiak apuntatzen joaten naiz zerbait interesgarria ikusten dudanean. “Bizi Baratzea Orria”-ren aurkezpenerako pentsatu nuen kontatzea zenbat gai ditudan, ba 246 gai neuzkan, eta jada igotzen joan da kopurua.

Azkenean mundua beste modu batera ikusten duzu. Telegramen modu batera egiten dugu: “Trikimailua”, minutu

azpitik irakurtzeko testu motz bat egunero; buletina, igandean egin eta astelehenero 8.00etan bidaltzen dut, 448.a joan da aste honetan, ia 9 urte daramatzagu; bizi-baratzean galderak... Mundu ikaragarri bat eraiki dugu eta oinarria da jakitea eta ikastea.

«Argia»-rekin hasi zinela 30 urte pasa beraz, eta lehen liburua ere garaitsu horretan argitaratu zenuen.



Argazkiak: Gorka RUBIO | FOKU

“Bizi baratzea” ateratzerako bi liburu idatzita nituen. Elhuyarekin bizpahiru urtez idazten ibili nintzen, eta haiekin “Etxe barrurako landareak” liburu atera genuen. Liburu txiki bat zen. Aurrena fitxa moduko batzuk argitaratzen ziren aldizkariaren erdiko orrian, horiek moztu, zulatu eta fitxategi batean sartzeko. Eta gero liburu atera genuen. Durangon sekulako arrakasta izan zuen. Gero, Usurbilgo Sagardo Egunarekin

batera, Euskal Herriko sagardoari buruzko liburuxka bat atera nuen. Eta gero etorri zen “Bizi baratzea”. Horrela izena du, baina behean, “Garaian garaikoa, garaiz” esaten du, “garaiz” hori delako inportantea, eta hirugarren izenburu bat ere badago, behean eta txiki samarra, baina inportanteena agian horixe da: “eman eta hartu”. Zeren askotan egiten duguna da hartu eta agian zerbait eman. Ez, ez. Lurrari aurrena eman egin behar diozu. Lurrari ez badiozu ematen gero alferrik joango zara bila. Eta lan honetan ere berdin, ematea da gauzarik inportanteena. Dakizuna, ahalegina, laguntza... Nire kasuan garbia da.

Instagram, Telegram, hitzaldiak... Moldatzen jakin izan duzu garai berrietara.

Ez dago besterik. Nik 64 urte ditut, ni pleistozenokoa naiz. Esan nahi dizudana da guk papera eta arkatzarekin idazten genuela. Marrazki teknikoak eskuz egiten genituen, tintarekin. Gero etorri zen rotringa, errotuladoreak... Gu garai hartakoak gara.

Hasteko, nik erdaraz ikasi dut. Nire formakuntza guztia gazteleraz izan da. Herriko eskola erdaraz zen, baina gure aita obsesionatuta zegoen euskararekin. Bost anai-arreba gara, ni bigarrena naiz. Herrian ikastola sortua zegoen, baina ume txikiekin. Anai zaharrena eta ni, Usurbilen lauzpabost ikasleko taldetxo bat, eskola horretatik atera eta Lasarteko beste lauzpabostekin batera, zortzigarren mailako gela bat sortu genuen ikastolan. Baina hor ere erdaraz izaten zen gehiena. Eta gero lizeora joan ginen, Donostiara, eta hor ere gazteleraz. Ikasgaiaren bat euskaraz, baina gutxi.

«Lehen galdetzen zizuten ‘noiz erein behar da perrexila?’ eta gaur egun landare baten izen zientifikoa esaten dizute, ez dakit nork ez dakit nondik ekarri diolako eta ez dakielako zer egin horrekin»

«Beti nabarmentzen dut baserriko emakumeen jakintza. Sekulako jakintza daukate, ez da inoiz baloratu, eta gutxietsita sentitu dira. Jakintza hori da nik berreskuratu nahi dudana»

Elkarrizketa bideoarekin Naizen

GAUR8



Gu euskaraz analfabetoak ginen. Hitz egin bai, gainera nik irakurri ere asko egiten nuelako, baina aitag argi zeukan alfabetatu egin behar genuela. Orduan, AEK sortu baino lehenago, hain zuzen ere Rikardo Arregi eta beste batzuk aritu ziren alfabetatzeko gelak sortzen herriz herri. Anaia eta biok, 10-12 urterekin, gau eskolara joaten hasi ginen.

Geroztik, hizkuntzarena niretzat obsesio bat bilakatu da. Hitz asko ditugu euskaraz eta hala ere erdaraz esaten ditugu. Hitz asko abandonatu egin ditugulako. Esateko erak, ize-nak... Landare bat ia egunero erabiltzen duguna eta euskaraz 30 izen desberdin dituen. Baina erdarara jotzen dugu askotan. Horrek ekarri zuen joera bat gero nik irratan sustatu egin dudana. Bazirudien nik sermoia botatzen nuela eta jendeak deitzen zuela galdetzeko bakarrik. Ados, nik gauza bat modu batera esan dut, baina ziur izen pila bat daudela beste modu batera esateko. Deitu edo idatzi, mesedez. Garai batean gutunak idatzi eta bidaltzen zituen jendeak, argazkiak paperean inprimatuta. Noski, orain, sareetako salto honek suposatu duena da hori dena erraztea.

Besteen jakintza ere bildu...

Beti nabarmentzen dut emakumeen jakintza. Sekulako jakintza daukate, ez da inoiz baloratu, eta gutxietsita sentitu dira. Jendarte honetan gutxietsiak izan dira, batetik emakumeak direlako eta bestetik jakintza hori lurrarekin lotuta dagoelako. Gizartearentzat hutsaren hurrengoa izan dira.

Baina hor dagoena da jakintza erraldoi bat, dakitelako klimari buruz, eguraldiari aurrea hartzen, daukate memoria in-

kontziente bat, gauzak noiz eta nola egin, nola jaso, nola kontserbatu, sukaldean nola egin... Baserriko emakume bategen, agian, ehun landare espezieri buruz daki.

Zeren gure baratzearen ezaugarri nagusia hori da. Herrialde mediterraneotan baratzea da “huerta” eta gero dute “jardín” delakoa. “Huerta”-k ematen die elikadura fisikoa, egunean 2.000 kaloria, eta “jardín” horrek ematen du elikadura etikoa edo estetikoa. Euskaraz ez dago horrelakorik. Gure baratzeak dira askoz aberatsagoa den kontzeptu bat. Landare mota guztiak bere barruan hartzen dituen: sendabelarrak, usaineko landareak, lokarriak egitekoak, erritualetan erabiltzekoak, loreak, fruta ematen duten arbustuak, fruta-arbolak, arbolak. Eta horri buruzko jakintza emakume horien buruetan zegoen. Hori da dagoen handiena eta nik berreskuratu nahi dudana.

Eta 64 urtera iritsita, lan horretan jarraitzeko prest?

Nik ez daukat jubilatzeke asmorik. Gaur egungo formakuntzarekin jendea oso espezializatuta ateratzen da eskoletatik. Nik zorte izugarria izan nuen gaztetako ekosistema horrekin. Nire atzetik ez dator horrelako inor. Ni baino askoz gehiago dakien jendea dator, baina gai oso konkretu batean. Horrelako pertsona bat jar dezakezu irratan bere gaiaz hitz egiten, baratzeaz nahi baduzu, baina esango dizu berari etxeko loreei buruz ez galdetzeko. Nik hor ikusten dut arazoa nire ordezeko bat topatzeko. Baina ez hori bakarrik, nik ez daukat uzteko gogorik. Oraindik ikasten ari naiz, garai hartako ume muki-tsu hori naiz.

GAUR8



ireki gure leihoa



Miren Garbiñe de Diego Kazetaritza eta Ikus-entzunezko Komunikazioan graduduna da EHU. Raul BOGAJO | FOKU

infraganti **MIREN GARBIÑE DE DIEGO**

Ohorezko matrikula jaso du Valentziako uholdeei buruz EHU egin zuen gradu amaierako lanak. Argazki eta testigantza osaturiko kronika horrek jarraipena duela kontatu dio GAUR8ri, Valentzian egun haietan pilatutako oroitzapenak eta bizipenak partekatuz. Fotokazetaritza aurkitu du informatzeko biderik zintzoena, zuzenena.

Valentzian ikusitako hondamendiaren egia kontatu nahi zuen Miren Garbiñe de Diegok (Gasteiz, 2002), uholdeek eragindako egoera erakutsi eta lekukotasunei ahotsa emateko, «iritzirik gabe, hau da dagoena» esateko.

«Egia, edo behintzat nire kamerarekin islatu ahal izan du dan egia» erakutsi nahi zuen, eta horretarako fotokazetaritza zen bide zintzoena EHU Kazetaritza eta Ikus-entzunezko Komunikazioan gradudun den gasteiztarraren ustez, fotokazetaritzak ahalmen hori daukalako, «gauzak diren moduan agertzeko gaitasuna», dio.

Iaz jazotako uholdeen inguruko informazio-zurrunbiloaren erdian, bertaratzeko aukera ikusi zuen eta ez zuen zalantza egin, kamera hartu eta Valentziara abiatu zen. Pala hartzeko asmoz joan zen, bertan laguntza emateko. Baina behin garbiketa lanak amaitzen zituenean, kaltetutako jendearekin hitz egiteari

ekiten zion. Ondoren, ikusi eta entzundako gradu amaierako lanera eraman zuen, eta ohorezko matrikula jaso. «Cicatrices del agua» (Uraren orbanak) du izenburua lanak, eta bost atal ditu: argazki erreportajea, albiste argazkia, argazkidun albiste, erretratadun elkarrizketa eta uholdeen aurreko eta osteko errealitatea erakusteko fotosaiakera.

Dena uholdeei buruzko albisteak heltzen hastean hasi zen, sareetatik heltzen ziren «milaka inputekin, bideoak, audioak...». «Kaos mediatiko» edota «desinformazio» gisa deskribatzen duen testuinguru horretan abiatzen da gradu amaierako lana bera baino askoz zabalagoa den De Diegoren proiektua, jarraipena izango duena beste zenbait bide eta formatutan.

Fotokazetaritza profesional gisa aritu nahi du gasteiztarrak, kameraren objektibotik begiratuta ikusten baitu errealitatea: «Mundua kamera baten bitartez ikusten dudala dirudi. Batzuetan dena argazki moduan irudikatuz erromantizatzen dut, eta, hala, sarri gertatzen zait pentsatzea: ‘jo, zer pena, ez daukat kamera’».

Kirolari handia ere bada De Diego. Izan ere, atletismoa da bere bigarren pasioa: «Nire bizitzaren oso alde inportantea da». Bestea, jakina, argazkilaritza da, «duen komunikatzeko gaitasunagatik». Bere bigarren gradu amaierako lana izan da goreneko saria jaso duen azken hau, gradu bikoitza egin baitu. Lehen lanarekin espero baino nota baxuagoa eman ziotela gogoratu du: 7,5. Aldiz, ez zuen espero azken lanarekin heldutako aitortza. «Bane-kien gaia oso potentea zela, baina ez nuen espero», onartu du. Egindako lana aintzatetsia



De Diego, gradu amaierako lanean aurkeztutako irudi batzuekin. Raul BOGAJO | FOKU

izan dela sentitzen du, baina nabarmendu du gaiari jarraipena emateko «lan handia» geratzen dela oraindik egiteko. Batez ere edizio lana aipatu du, material asko pilatu baita: «Jaitsi nintzen kamerarekin Paiportara eta hasieran gauza bat neukan buruan, baina, argazkiez gain, audioak ditut, bideoak... Horri guztiari forma eman behar zaio». Esan duenez, 3.000 argazki baino gehiago ditu, baina baita hamarnaka bideo eta audio ugari ere. «Hori guztia aztertu behar dut eta material horrekin zer egin erabaki», azaldu du.

Hiru aldiz joan da Valentzia; iazko azaroaren 9an lehen aldiz, uholdeak izan eta aste-betera; abenduan itzuli zen berriro, eta uztailean joan zen azkenekoz. Hiru aldietan ikusi du itxi ez den zauri bat, hortik lanaren izenburua. Inpaktu

handiko istorioak ezagutzeko parada izan du, eta azpimarratu du izen-abizenak eta aurpegiak dituzten kontakizunak direla bildu dituenak. «Datuak eta lekukotzak ematen saiatu naiz une oro, iritzirik eman gabe, norberak atera ditzan bere ondorioak».

KOMUNIKABIDEDEKIKO MESFIDANTZA

Bidaia bakoitzean ikusitakoak ikuspegi zabalagoa eman dio De Diegori. Valentzian, dioenez, lokal askoren izenei erantsi diete “berria” hitza, hasiera berri bat irudikatzeko, «baina badago dena galdu duen jende asko». Horregatik, minaren erdian jendearekin hitz egitea ez zen erraza izan.

Uholdeek kaltetuenetako bat izan zen Paiporta herria izan zen Miren Garbiñe de Diegoren lehen helmuga. Kallean pilatutako lokatzaren gar-

biketan laguntzea izan zuen lehen zeregina, leku askotatik heldutako boluntarioen ondoan. Lan hori amaitutakoan egiten zuen kazetaritza lana, eta orduan deskubritu zituen ohiko komunikabideekiko mesfidantza eta haserrea. «Kostatzen zitzaidan kamera hartzea, jendeak oso txarto begiratzen ninduelako, ez zeuden ados egiten ari zen kazetaritzarekin. Energia oso negatiboa zen, kamera ikusi eta saiatzen ziren lurrera botatzen. Gero azaltzen nien ikaslea nintzela, ikusten zuten urrutitik laguntzera joandako norbait nintzela, eta orduan jarrera aldatzen zuten eta hasten ziren euren historia kontatzen, azken finean, gertatutakoa ezagutarazteko kontatzea beharrezko zutelako».

Herritarren haserrearen atzean oso egoera mingarriak

Instagram eta YouTube bezalako kanalak erabili ditu informazioa zabaltzeko. Orain edizio lanean ari da jasotako material guztia antolatu eta formatu egokienean gordetzeko

«Ez dakit nola bukatuko duen lan honek guztiak, ez dakit argitaratuko den... Nire asmoa kontatzen jarraitzea eta jendeari ahotsa ematea da», nabarmendu du De Diegok

zeuden. Azaldu duenez, herritar askok «bihotza ireki» zuten kameraren aurrean, baina ostean argitaratuta ikusitakoak zerikusi handiagoa zuen Pedro Sanchez presidente espainolaren aurkako kritikekin benetako egoerarekin baino; eskusibak azkar lortzea zen gakoa, inolako enpatiarik erakutsi gabe herritarren sufri-menduekiko. Hori bai, herritarren jarrera «erabat aldatzen zen nire helburua ikuspegi neutral batetik informatzea zela ikusten zutenean, orduan, ‘mesedez, kontatu hau’ esaten zidaten».

Loa kentzeko moduko mila irudi eta kontakizunekin egin zuen topo De Diegok: senideak galdu zituzten herritar, etxea eta lana galdu zutenak... Adibidez, gogora ekarri du taxian zihoazela gidariak kontatu ziena. Euri-jasaren gau ilun hartan leiho bateko barroteei helduta zegoen 16 urte inguruko gazte bat ikusi zuen gidariak, eskua luzatu zion eta hartzeko esan lagundu nahian, baina gaztea oso beldurtuta zegoen. Une horretan lokatzak maila handia hartua zuen jada eta ura indarrez jaisten zen. Lagun bat aurkitu zuen gidariak izkinaren bueltan, elkarrekin laguntzera itzuli eta mutila jada ez zegoen bertan. Kontatu zienez, une hartan guztiz akituta zegoen dagoeneko, eta ez zuen

Elkarrizketa bideoarekin Naizen

GAUR8



argi benetan zer gertatu zen: irudikapen hutsa izan ote zen, gaztea benetan ikusi zuen, gazteak bere burua salbatzea lortu edo urak eraman zuen...

Bost minutu zeramatzaten Valentzian taxistaren kontakizuna entzun zutenean, eta lagunak eta biak elkarri begiratu eta gauza bera pentsatu zuten: «‘bihar zer ikusiko dugu?’». Egoera kezkagarri horretan, «Gasteizko jendeak esaten zidan, ‘baina zertara joan zara?’ Ondo dago dena, joan dira jada laguntza ematera».

Baliabide falta izugarriarekin egin zuen topo: «Paipor-tan ez nuen baliabiderik ikusi, zeuden militarrek boluntarioak ziren, UMEkoak ere ba-zeuden, baina oso leku zeha-tzetan. Tolosatik joandako suhiltzaileak zeuden, adibidez. Lokatzetan sartu eta dena kan-pora bultzatzea zen helburua, baina gauzak kanpora atera eta makina ez bada heltzen... Batzuetan makina bakarra norbaiten traktorea zen!». Dioenez, «oso baliabide gutxi» zituzten eta «oso astiro hel-tzen zen dena».

Leku batetik bestera mugit-zea odisea hutsa zen. Oinez egin behar izaten zuten bidea askotan, «laneko botak jantzi-ta eta material guztia soinean: palak, motxila pisutsua... Bide asko moztuta zeuden eta, ilun-tzen zuenean, argirik gabe, arriskutsua zen egoera». Tran-

Irudian, gazte arabarra Valentzian, kaleak oraindik lokatzez gainezka zeuden tragediaren osteko lehen egunetan. Garbiñe DE DIEGO

tze horretan egin zuen bidaia Paipor-tatik Valentziara, bertan deituta zegoen manifestaziora joateko. «Bi ordu egin nituen oinez botekin eta lokatzez beteta, eta ni bezala beste askok. Heldu ginenean normal-tasuna zen nagusi: jendea ka-fea hartzen, erosketak egiten... Ni, berriz, norbera babesteko ekipamendua jantzita, bote-kin... ‘Black Mirror’ zirudien, mundu paralelo bat!».

USAIN «DESKRIBAEZINA»

Inpaktu handiena eragin zio-na, halere, usaina izan zela esan du, «deskribaezina», ba-rru-barruraino sartzen den horietakoa. Sei hilabete pasata Paipor-tara heltzean, bertan ja-rraitzen zuen, «metrotik irten eta bertan zegoen berriro». Azaldu duenez, usain hori ezin da ezerekin alderatu, «ez duzu

nolakoa zen deskribatzeko modurik». Denborak ematen duen perspektibarekin, uztai-leko azken bidaia bereziki go-gorra izan zela kontatu du, hondamendiaren orbainen ondoan agerikoak baitziren oraindik zauri pertsonalak.

Horren harira aipatu du gal-dera asko daudela oraindik erantzun gabe, gertatutakoa-ren erantzuleei dagozkienak asko, baina baita hondarretan pilatutako kutsaduraren ingu-rukoak, hondamendiak era-gindako osasun mentaleko arazoen gainezkoak... «Gustatu-ko litzaidake osasun mentalaz norbaitekin hitz egitea, konta-tzea mentalki nola dagoen fa-milia osoa galdu duen amama, zenbat suizidio egon diren...».

Gasteiztarraren lana ez da gradu amaierako lanarekin bukatu. Zuzeneko informa-

zioarekin jarraitu du Insta-gram eta YouTube. Horrez gain, edizio lanean ari da jaso-tako material guztia behar be-zala antolatzeko.

Carlos Mazonek Valentziako Generalitateko presidentek eman berri duen dimisioaren harira, mingarria egin zitzaion biktimen aldeko hileta elizki-zunetan agertu eta karguan urtebete mantendu izana, «min handia dagoelako eta ez dutelako egia esan». «Nik elka-rrizketatutako guztiek herio-tzak saihesgarriak zirela esan dute», azpimarratu du.

Valentziara itzuliko da berriz ere De Diego, uraren orbainen kronika irudi berriekin osatze-ra, enpatiatik, gertaerak jazo bezala transmititu nahi dituen kazetaritza eredu batetik. •

Nerea GOTI

De Diegorentzat «hunkigarria» izan da uste baino «askoz txarrago» aurkitu zuen Valentzian bizitakoa. Ikusitako minak «bizitza ikusteko modua aldatu» diola nabarmendu du

Berriro zabaldutako lokal askotan «berria» hitza gehitu dute, baina badago gizartearen sektore bat aurrera jarraitzeko indarrik aurkitu ez duena, «ez ekonomikoki, ez mentalki»





Goretti ECHEGARAY LOPEZ

EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

«Ingeniaritza» hitzaren generoa

Marraztu ingeniari bat. Hori izango litzateke eskolako irakaslea izango banintz haurrekin egingo nukeen ariketa: ezer

gehiago azaldu gabe, marraztea. Ziurrenik, gehienek gizonezko bat irudikatuko lukete, kasko horiarekin, planoak eskuan edo induskatzeko makina baten ondoan, edo fabrika batean. Lan fisikoa, industrialia eta maskulinoa. Hamarkadetan zehar barneratua izan den irudi estereotipatua.

Jakina da ikasketen hautaketa ez dela prozesu guztiz arrazionala. Hautu hori gizarte- eta kultura-faktoreez baldintzatuta dago, eta faktore horiek, askotan konturatu gabe, lanbide desberdinak irudikatzeko dugun moduan eragiten dute. Belaunaldi berriak ildo horretan deseraikita daudela uste izan arren,

errealitateak kontrakoa dio. Ideia jakin batzuk gure hezkuntzan, komunikabideetan eta eguneroko harremanetan txertatuta daude, eta, oharkabean, gure aukerak baldintzatzen dituzte.

Adibide esanguratsu bat nire klaseetan ikus daiteke: 2025/2026 ikasurtean, Adimen Artifizialeko Gradu-ko lehenengo mailan ematen dudan irakasgaian, emakumeen tasa %24koa da. Informatika Ingeniaritzako Graduan, aldiz, %19koa. Urtero oso antzekoak dira datu horiek. Bi kasuetan emakumeen presentzia txikia da, baina diferentzia bereziki deigarria iruditzen zait Adimen Artifizialeko Gradua Ingeniaritza Informatikoaren espezializazio bat dela kontuan izanda. Alegia, lehenengoa bigarrenengoaren irakasgai multzo bat egokituz diseinatutako gradua da. Baina, noski, ez du hitz madarikatua izenean eta ti-

tuluaren karga sinbolikoa murriztu egiten da.

Ez da, ordea, fenomeno berria. 1980ko hamarkadan, emakumeak gehiengoa ziren informatikarekin zerikusia zuten ikasketetan. Garai hartan “Informatikako lizentzia” zen tituluaren izena. 1990. urtean “Ingeniaritza Informatikoa” izena esleitu zitzaion, eta kasualitatea edo ez, emakumeen matrikularen beherakada azkar gertatu zen. Zerk azaldu dezake hori?

Hainbat ikerketa eta inkestek erakutsi dutenez, emakume asko ez dira “ingeniaritza” hitza duten ikasketekin identifikatuta sentitzen. Hitzak, tradizioz, irudi maskulinoa gogorazten omen du, lan teknikoa, mekanikoa edo ustezko gogortasun intelektualekin lotua. Aldiz, sormen edo diseinuarekin lotutako graduek emakume gehiago erakartzen dituzte, nahiz eta eduki aldetik ingeniaritza baten oso antzekoak izan.

Azken finean, titulu baten izenak ez du soilik bere eduki akademikoa deskribatzen: haren parte izatera deituak izango direnak ere definitzen ditu. Izenak sortzen duen irudia gure bizipenek eta gizarte ereduak eraikitako erradiografia da.

Gauzak horrela, tentagarria da pentsatzea irtenbidea titulazioen izena aldatzea dela. Baina hori baino sokenagoa da hausnarketa. Nire ustez, ahalegin handiagoa egin behar da ingeniaritzaren gizarte-pertzepzioa eraldatzeko: emakume erreferenteak ikusarazi, hezkuntza teknologikoa txikitatik sustatu eta gaitasun teknikoa maskulinitatearekin lotzen duten estereotipoak zalantzan jarri. Erronka latza dugu, baina ezinbestekoa gizarte anitz eta berdinzaleago baterantz jotzeko. •



1980ko hamarkadan, emakumeak gehiengoa ziren informatika ikasketetan. GETTY

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



JOSE MARTINEZ BERASAIN. NAFARROAKO ERREGE ARTXIBO NAGUSIA.

UR HORNIDURA, XX. MENDE HASIERAKO NAFARROAN

XX. mendearen hasieran Nafarroako Erdialdeko herri batean ateratako argazki honek herritarrak urez hornitzen erakusten ditu, eguneroko bizitzako funtsezko zeregina zena. Irudian ikus daitekeenez, emakumeek eta gizonek pegarrak betetzen zituzten, gero astoz garraiatzen zituztenak paisaia soiletan barna. Irudiko harrizko eskailerek eta pegarren antolaketa ordenatuak, espazio horretan ohikoa zen praktika erakusten dute. Egilea Jose Martinez Berasain (1886-1960) da, Iruñeko Banco de Bilbao banketxeko zuzendaria eta karlismoaren figura nabarmena izan zena. Afizionatu gisa landu zuen argazkigintza, eta familia bizitza, jaiak, paisaia eta Nafarroako hiri eta industria paisaiaren eraldaketa erretratatzeko dituzten 438 irudiko funtsa utzi zuen.

2025eko GABONAK **GARA**ko komunitatearentzako eskaintza berezia

Kataluniako kalitatezko cavak

Bi Brut de Brut Maria Casanovas cava botilako sorta

Elaborazio tradizionala
%100 Ekoizpen ekologikoa



Kutxatila dotore batean aurkeztua

Eta aurten, tapoi hermetiko bat,
Euskal Herriko armarria daukana, OPARI!

GARA

SORTA BAT
(bidalketa-gastuak aparte)

25
euro

Eskaintza berezia
BI SORTA
(bidalketa-gastuak aparte)

45
euro

ESKAERAK EGITEKO:

Harpidedunek: Mezu elektronikoari erantzunez • **Naiz Denda:** denda.naiz.eus • **Arreta Zerbitzua:** 943 31 69 99

